

hh  
hik hasi

171



GAIA: GURAIZEEN LEZIOA • ELKARRIZKETA: IÑAKI MURUA • PARTAIDETZA (I)  
• ETXEAN BIRZIKLATU ETA IKASTETXEAN BILDU • NAIROBITARRA  
• GALDEIDAZUE: IMANOL IGEREGI • BIBAT MUSEOA • JOXEAN AGIRRE



LEHEN IRAKURLEAK



Arrate Egaña  
Jone Taberna

## FAMILIA BERRIA

Marita etxe berri batean bizi da, lehengo familia gerra batean galdu zuen eta. Egun batean ahate txiki bat agertu da, haren lagun guztiak hil baitira, chiztarien tiropean.

LEHEN IRAKURLEAK

Antxiñe Mendizabal  
Iosu Mitzelena

## AMETSI TRIPEK HITZ EGITEN DIOTE

Ametsi, ohera sartu eta begiak itxi orduko, tripek hizketan hasten zaizkio; batzuetan, lehoi batek bezala orroka; beste batzuetan, txerri baten antzera kurrinka, eta askotan, otso baten pare uluka. Hain dira handiak hotsak, ezinezkoa zaiola lokartzea.



# BIZI LITERATURA

8 URTE



Begoña Ibarrola  
José Luis Navarro

## EHUNZANGO DANTZARIA

Mitxoleten zelaian animalia asko bizi ziren, eta elkarri laguntzen zioten lagun onak zirelako. Ehunzangoa aparta zen jaiak alaitzeko, oso dantzari trebea zelako. Egun batean, apo beldurgarriak bere jaietan dantzan egiteko eskatu zion ehunzangoari.



Begoña Ibarrola  
Ulises Wensell

## ZER DUZU, MATXANGUS?

Tarimaneko oihanean, tximino familia zabala bizi zen. Tximinoek bazituzten, batetik, lan egiteko uneak, eta bestetik, ondo pasatzeko uneak. Baina ondo pasatzeko uneetan, Matxangus adar batean geratzen zen, pentsakor, lagunak saltoka jolasean edo ibaian.

elkar

www.elkarargialetxea.com

# aurkibidea



**8**  
gaia

## GURAIZEEN LEZIOA

Murrizketen ikasturtea izango da irailarekin hasi berri den hau Euskal Herriko ikastetxe askotan. Baina baita aldaketena ere. Batetik, Espainiako eta Frantziako Gobernuak euren hezkuntza sistemak aldatzeko erreformak prestatzen ari direlako. Eta, bestetik, antolaketa politikoa aldatu litekeelako datozen hilabeteetan.



**16**  
elkarrizketa

## IÑAKI MURUA

Nolako irakaslea ez zuen izan nahi ikasi zuen lehenengo, umetan Gabirian jasan behar izan zuen maisu bati “esker”. Baina irakaslea baino gehiago, hezitzailea da Murua, halaxe aldarrikatzen du berak, “ez luke existitu behar irakasleak, hezitzaileak bakarrik existitu behar luke”.

**5** editoriala

**6** hizpide izan da

**8** hizpide izango da

**10** gaia

**GURAIZEEN LEZIOA.** Murrizketen eta erreformen ikasturtea

**16** elkarrizketa

**IÑAKI MURUA.** Irakaslea eta bertsolaria

**23** PARTAIDETZA (1)

**30** esperientziak

Etxean birziklatu eta ikastetxean bildu

**32** esperientziak

Nairobotarra: mundua ezagutzeko bide

**35** galdeidazue

Ikastetxeen autonomiak ba al du eraginik eskola-arrakastan? Imanol Igeregi

**40** nora joango gara?

Gasteizko BIBAT Museoa

**42** Atzeko atetik

Joxean Agirre. Kazetaria eta idazlea

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Graf'k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-09-25). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.





# zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

**berria**laguna

Informazio eguneratua  
eta euskarri gehiago:  
[www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna)

**berria**<sup>info</sup>

Honako ekarpen hau egin nahi diot  
BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI,  
G71006795 IFK duena:  
Alderazi X batez zure aukera

Urtean 100 €  Urtean 200 €  
Aldi batean  Aldi batean   
Lau zatitan  Lau zatitan

Urtean beste kopuru bat:  €  
Aldi batean   
Lau zatitan

100 eurotik beherako kopuruetan  
ordainketa aldi batean egingo da

Hilean 10 €

Sinadura

**berria**laguna izan nahi baduzu,  
bete datuak eta helarazi:

- [www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna)
- **Postaz:** BERRIA, Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** [laguna@berria.info](mailto:laguna@berria.info)
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, beterrik jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAREN fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago kusteke, zuzentzeko, ezabatuzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Iatxe Monastegia 45, 13. 31011 Iruñea.

# editoriala

## urria

### *Bi erreformen erdian*



Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak —hau da, hego euskal herriarrok aurten eta ziu renik hurrengo urtean aukeratuko ditugun geure ordezkariak— zeresan gutxiago izango dute datorren urtetik aurrera gure lurraldeko ikastetxeetan. Edukietan nahiz egituretan aldaketa handiak egingo ditu Jose Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroak, eta eskola porrota saihestera bideraturiko hezkuntza erreforma baten izenean sistema zentralizatu eta homogeneizatu egingo du. Edukietan nahiz egituretan bilatzen du PPren gobernuak zentralizazioa eta homogeneizazioa.

Wertek erreformaren aurreproiektua aurkeztu zuen egun berean entzun ziren Euskal Herriko hezkuntza eragile asko eta askoren protestak eta kexuak, dimisio eskaerak, nahiz desobediencia oihuak. PP eta UPN bakar-bakarrik gelditu dira Wertek proposamenaren onartu dutenen aldean. Halaxe esan zuen Antonio Basagoiti PPren EAeko presidentek: “EAEn Espainiako hezkuntza nazionalaren pisu gehiago ego-

tea, ona da”. Beste aldean, erreformaren kontra, gehiengoak bat egin du.

Lau aldaketa nagusi ezarriko ditu Wertek. Batetik, curriculumari loturikoa: aurrerantzean Madrilek erabakiko du curriculumaren %65; bigarrenik, eskolen egituretan aldaketak egingo ditu: zuzendariak ahalmen handiagoa izango dute, eta eskola-kontseiluek txikiagoa; azterketak izango dira sistemaren oinarri, eta errebalida nazionalak berreskuratuko dira. Azkenik, DBHko laugarren urtea aldatu egingo dute, eta 15 urtekin aukeratu beharko dute ikasleek Batxilergoa edo Lanbide Heziketa egin.

Baina Wertena ez da Euskal Herriko ikastetxeetan eragingo duen erreforma bakarra. François Hollande presidentea ere Frantziako hezkuntza sistema birpentsatzen ari da, eta horren ondorioek eragina izango dute Lapurdi, Behere Nafarroa eta Zuberoako eskoletan.

Hollanderen erreformaz ez dira Raxoiren erreformaz adina informazio zabaldu, baina, antza denez, Sarkozyren proposamenak baino progresistagoak

**Espainiak hezkuntza sistema zentralizatuko du Wertek legearekin, eta Hollande ere erreforma prestatzen ari da. Kanpotik hartutako erabakiek Euskal Herriko hezkuntzan eragingo dute, beste behin.**

egin nahi ditu. Hasteko eta behin, hezkuntzari garrantzia eman, eta baliabideak eta lanpostuak ugaritzen hasi da Hollande. Haatik, ikusteke dago bere erreformak euskal hezkuntzari eta euskal curriculumari ekarpen baikorrik egingo al dion, Hollandek ez baitu apenas hitzik egin Euskal Herriaren izaite nazionalaz.

Bi estatuek proposaturiko hezkuntza erreformek zazpi lurraldeei eragingo diete zuzenki; hau da, Euskal Herriko haur eta gaztetxo guztiei. Barrutik, Euskal Herritik, kontrakoa eragiten ez bada, kanpotik —Espainiatik eta Frantziatik— gero eta gehiago eragin dezakete euskal herritar guzti-guztion hezkuntzan. Ikasturte esanguratsua izan liteke, beraz, hasi berri dugun hau. Hegoaldean, ahotsak batu dituzte sindikatu eta eragileek Wertek proposamenaren aurka, baina ekintzak ere elkarrekin egin eta pentsatzeko premia egingo da. Baita Iparraldean ere, Hollanderi argi eta garbi esateko zer nolako heziketa nahi duten euskal herritarrek.



# hizpide

## XIII. hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

*hik hasi EHUko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin batera XIII. Udako Topaketak antolatu ditu. Aurreko urteetan, Donostiako EHUUn egiten genituen. Orain, Bologna dela-eta "iraileko" azterketak uztailean pasatu direnez, azken bi urteetan ezin izan dugu han egin. Aurten, Donostiako Gros auzoko Zurriola ikastolan egin diren 16 ikastaroetan 276 kidek hartu dute parte, inoiz izan den kopururik txikiena. Ikastaroen balorazioak, berriz, inoizko altuena jaso du. Izan ere, 1-9 bitartean baloratu behar ziren eta 8tik gora jaso dute ikastaro guztiek.*



## Hezkuntza komunitatearen zati handi bat, greban

Milaka euskal herritar grebara atera ziren iragan irailaren 26an, euskal gehiengo sindikalak deiturik, Espainiako Gobernuaren ezartzen ari den murrizketak salatu eta eskubide sozial eta laboralak exijitzeko. Horien artean, hezkuntza komunitateko irakasle eta eragile asko zeuden, lanuztearen deialdiarekin bat egin zutenak. Krisia hasi zenez, bosgarren greba orokorra izan da.

Horrelakoetan ohi denez, zenbaki dantza handia izan zen greba ostean. Sindikatuen arabera, irakaskuntzan greba jarraitu zuen langilegoaren %75ak. Datuak xehetuz, EILASEk jakinarazi zuen %60-65ekoa izan zela grebaren jarraipena EAEko hezkuntza publikoan, eta %80 eta %95 artekoa hezkuntza pribatuan eta ikastoletan. EHUren hiru campusetan %80ko geldialdia zenbatu zuen sindikatuak. Aldiz, Jaurritzak irakaskuntzan %63koa izan zela esan zuen. Nafarroan, lurraldearen iparraldean izan zuen eragin handiena grebak, eta oro har hartuta, hezkuntzan izan zuen eragin handiena lanuz-

teak. Administrazioek gutxienezko zerbitzuak ezarri zituzten irakaskuntzan ere eta ikasleei sarrera bermatzeko, langile batek joan beharra izan zuen goizeko eta arratsaldeko txandetan, zentro publiko eta itunpekoetara, partzuergoko haurreskoletara, edo udalen esku dauden haur eskoletara, nahiz Euskal Herriko Unibertsitatera eta Musikene eta udalen esku dauden musika eskoletan.

Espainiako Gobernuaren murrizketa plan gogorra ez ezartzea, eta desobedituz, Madrili planto egitea eskatu zuten ELA; LAB; ESK; EILAS; EHNE; Hiru, CGT eta CNTko ordezkariak eta 50 gizarte eragilek. Murrizketen kontra, eta BEZaren igoeraren, langabezia saria jaistearren kontra egin zuten deia, eta hezkuntzako eragileek, prezeski, hezkuntzan ezarritako murrizketak eta berriki Jose Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroak aurkeztu duen erreforma zentralizatzailearen kontra egiteko exijitu zuten grebaren egunean bertan.

# izan da

## Gorputz Hezkuntzako topaketetatik, indarturik



Ekainean Iurretan egin ziren Gorputz Hezkuntzako topaketak arrakastatsuak izan ziren. Izan ere, 100 kide-

tik gora aritu baitziren bertan eta "Ebaluazioa Gorputz Hezkuntzan" gaiari ongi heldu baitzion Victor Lopez Pastor Segoviako irakasleak eskaini zuen hitzaldian.

Horrek guztiak eta dinamika parte hartzailea erabiltzeak, kideen ekarpenak ugari izatea lortu zuten. Hiru dinamikaren ondoren, ondorio hauek atera zituzten topaketan:

- Etengabe berritzen aritzeko, aholkulari orokorraren figura indartzea eta birkokatzea.
- Derrigorrezko hezkuntzan aste-ro 2-3 ordu ematea legez finkatzea

eta presentzia hori benetan lortzea.

- Hezkuntza Sailaren ardurapean dagoen GHko weborriaren kudeaketa aholkularien esku egotea eta hezitzaileek eurek hornitzea.

- Kideen arteko etengabeko pres-takuntza indartzea, SOHATEk eskaintzen duen autonomia eta eragin-kortasuna baliatuz.

- Eskola komunitatean GHk izan beharko lukeen duintasuna bermatzea.

- GHko programazio bateratu eta estandarraren beharra, gero ikaste-txeetan moldatu beharko bada ere.

## hik hasik 18 ikasturte daramatza euskal hezkuntza indartzen eta laguntza eskaintzen



Informa zaituz eta parte hartu  
**hik hasi** proiektuan harpidetuz  
[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

# hizpide



## “ESPAZIOen antolaketa haurren AUTONOMIA garatzeko” jardunaldiak

Urtero bezala, Haur Hezkuntzako hezitzaileentzako jardunaldiak prestatu ditu *hik hasi*. Aurten, azaroaren 9an eta 10ean egingo dira, “espazioa” gaia hartuta; hau da, espazioak, haien antolaketak eta inguruak duten garrantzia haurren autonomia garatzeko. Hizlarien artean, Kataluniako Pikler Hengstenberg taldeko Rosa Vidiella pedagogoa izango da. Harez gain, Euskal Herriko hainbat esperientzia aurkeztuko dira.

## Haur Hezkuntza inklusiboa I. Arreta goiztiarra

**ADARRA Pedagogi Erakundeak** antolatuta, urriaren 22an eta 30ean jardunaldiak egingo dira Bilbon. Urriaren 22an, Vicenç Arnaiz psikologoak “Ahalik eta lasterren, hobe” hitzaldia eskainiko du. Urriaren 30ean, EAEko hainbat kide arituko dira. Informazioa: [www.adarra.org](http://www.adarra.org)



## UEUren eskaintza udazkenerako

Urria eta abendua bitartean 13 ikastaro eskainiko ditu UEUK.

### Eibarren

#### Informatika eta teknologia berriak

- Moodle 2.0-ren oinarritzko erabilera (on line).
- Ubuntu: ordenagailua modu erraz eta librean erabiltzeko.
- Marketina interneten.

#### Giza eta gizarte-gaiak

- Guraso/hezitzaile eta haurren elkar ulertzea: zigorrak, xantaiak eta mehatxurik gabeko harremanak.
- Sexualitatean aholkularitza egiteko jarraibideak osasun arloan.
- Bileren dinamizazioa.
- Entzun zure gorputza.
- Mingostu gabe bizi, ezerekin, inorekin. Zure bizitza aberasteko gakoak.
- Sormena lantzeko tailerra.

#### Osasun zientziak

- Neuromuskuluesketikoen froga diagnostikoak.

### Iruñean

- Argazkigintza digitala eta GIMP, irudiak editatzeko programa libre.
- Euskal Mitologia: hurbildu antzinako euskal mundura.
- Emozioen kultura, norberaren gaitasunak lantzen.



# izango da

## Bizkaiko Urtxintxa eskolak 2012-13 ikasturterako eskaintzen dituen ikastaroak



### Ikastaro luzeak

- Astialdiko Begirale Ikastaroa.
- Astialdiko Zuzendari Ikastaroa.
- Jendarte Kultur Dinamizatzaila.
- Hezkidetzan Aditua.
- Kulturarteko Hezkuntzan Aditua.

- Heziketa premia bereziak.
- Parte-hartzeko teknikak.

### Ikastaro laburrak

- Kulturartean igeri egin nahi dut!
- Feminismoak eta haien eragina.
- Emakume etorkinak: bazterketa bikoitza.
- Kontu-kontari bizitzaren hari.
- Gorputz adierazpena.
- Nola hitz egin sexualitateaz.

### Informazioa:

[www.urtxintxaeskola.org](http://www.urtxintxaeskola.org)

## HH eta LHko irakasleentzako GITARRA ikastaroa



kasleekin hastea da. Helburua, ikastaro amaieran, eskola giroko kantuak eta zenbait abesti herrikoi gitarraz laguntzeko gai izatea da.

Noiz: **ostiraletan**, urriaren 19an hasi eta ekainaren lehen astean amaitu. Ikastaroa eta materiala 240 euro izango da.

Ordua: 18:00 - 19:30.

Argibideak: 943 463 555 edota [xirula@euskalnet.net](mailto:xirula@euskalnet.net)

Helbidea: Catalina Erauso, 12 (Amara auzoa). DONOSTIA.

Laugarren urtez, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan arituko diren irakasleentzako **gitarra ikastaroa** antolatu du **Xirula Mirulak**.

Asmoa, ezertxo ere ez dakiten ira-



## II. Jardunaldiak Immigrazioa eta integrazioa EAEn

Immigrazioa eta integrazioari buruzko II. Jardunaldien bidez etorkinen integrazio-prozesuetan sakondu nahi da. Zehazki, integratzen oso garrantzitsuak eta gero eta indar gehiago dituzten bi arlo landuko dira: alde batetik, etxebizitzaren gaia, egonkortasuna eta errotze-prozesurako ezinbesteko elementua izanik; bestetik, hezkuntza ere hizpide izango da, integratzen oso mugikortasun sozialerako ardatz bezala ulerturik. Horiez gain, integratzen neurtzeko adierazleak erabilera edota aurreiritzei aurre egiteko EAEn martxan jarri den zurrumurruen aurkako estrategia aztertuko dira. Jardunaldiek Topaleku eta hausnarketarako gunea izan nahi dute, eta, aldi berean, integratzen inguruko gogoeta bultzatzeko asmoa dute etorkizunari begira, are gehiago gaur bezalako testuinguru ekonomikoan. Jardunaldiak Bilbon izango dira azaroaren 8an eta 9an. [info@ikuspegi-inmigracion.net](mailto:info@ikuspegi-inmigracion.net)

# GAIA

## Guraizeen lezioa

*Murrizketen eta erreformen ikasturtea*







**Murrizketen ikasturtea izango da irailarekin hasi berri den hau Euskal Herriko ikastetxe askotan. Baina baita aldaketena ere. Batetik, Espainiako eta Frantziako Gobernuak euren hezkuntza sistemak aldatzeko erreformak prestatzen ari direlako, lpar zein Hegoaldeko ikastetxeei norabide zeharo desberdinean eragingo dieten erreformak, bidenabar esanda. Eta, bestetik, antolaketa politikoa aldatu litekeelako datozen hilabeteetan: hauteskundeak izango dira hilabete honetan EAEn; 2013ko udaberrira aurreratu litezke Nafarroakoak, eta inoiz baino eskumen handiagoak izan ditzake Iparraldeak abiatu berri den Lurralde Elkargoa osatuko balitz.**

## Ikasle kopurua da aurten hazi den kopuru bakarra

Agurrak, musuak, malkoren bat edo beste... ikasturte hasierak uzten dituen argazkiak horrelakoak izan ohi dira. Aurten, alabaina, eskola-sartzeari loturiko bestelako argazki bat erakutsi digu prentsak: Tafallako Garces de los Fayos ikastolako haurrak mahaiak kalera aterata, gelan pairatu behar duten pilaketa salatzen du erretratuak. Iragan irailaren 11n ateratakoa da argazkia. 2012-2013

ikasturte hasieraren irudia da, murrizketen ikasturtearen argazki bat. Argazkiaren pareko egoera erakusten dute prentsan eskola-sartzearen inguruan egin dituzten erreportajeetako tituluak ere. Halaxe zioen irailaren 4ko *Berriak*, adibidez: "Ikasle gehiago badaude ere, iazko baliabide 'bertsuak' jarri ditu Eusko Jaurlaritzak". Hurrengo egunean hauxe irakur zitekeen berri-paper horretan: "Nafarroan 350 irakasle gutxiago kontratatu dituzte aurten". Bi egunetara, hauxe zen titularra, Frantziako Hezkuntza Ministerioak murriztu nahi dituen irakasle postuengatik: "Okupazioak, irakasleak atxikitzeko". Titularrek erakusten duten eran, ikasturte hasierako albiste nagusiak zazpi herrialdeetan murrizketei egiten diete erreferentzia.

Zenbakiak bada, bestetan ez beza-

la, matrikulazio datuez baino gehiago, murrizketez mintzatu dira ikasturte hasiera honetan. Kenketari kenketa batu diote ikastetxe akok. Dena den, matrikulazio datuei begira, irail honetan, 500.000 ikaslek baino gehiagok hasi dute ikasturtea. Datu zehatzak ematea zail da, Lapurdin, Nafarroa Behe eta Garaian eta Zuberoan matrikulazio epea itxi gabe hasi baitute kurtsoa, baina lehendabiziko datuen arabera, 515.000 ikasle inguru sartu dira aurten ikastetxeetan. Azken hamarkadako joerari jarraitzen dio aurtengo ikasle kopuruaren hazkundek.

Ikasle kopurua izango da aurten eskolako gaiei begira haziko den zenbaki bakarretakoa. Irakaskuntzako esparru gehienetan —bereziki Hego Euskal Herrian, eta gehien bat Nafarroan— hazi ez eta murriztu egingo baitira irakaskuntza-baliabideak. Aurtengoan, beraz, guraizeen lezioa, bederen, ondo ikasiko dute irakasle, langile, ikasle zein gurasoek.

Lan baldintzetan, baliabideetan, lanpostuetan edo soldatetan izan diren murrizketek, eta, alderantziz, ratioetan izan den gorakadak hezkuntzaren kalitateari osoki eragiten diotenez, begira dezagun, nola hasi duten ikasturtea Euskal Herriko ikastetxeek.



Eskola publikoko gurasoek Arrosa-Ortzaizeko ikastola okupatu zuten Frantziak murriztu nahi dien irakasle postua eskatzeko

# G



# Murrizketen eta erreformen ikasturtea

Herrialderik herrialde, murrizketa nagusienak Nafarroan pairatuko dituzte ikasturte honetan, Yolanda Barcinaren Gobernuak aplikatu egin baititu Mariano Raxoiren Espainiako Gobernuak krisiari aurre egiteko ezarritako neurri guztiak. Hasteko eta behin, 350 irakasle gutxiagorekin abiatu du ikasturtea —iaz beste 250 irakaslek lana galdu zutelako kontuan izanik, bi urtean 550 irakasle-lanpostu galdu dira Nafarroan—. Lanpostuari eutsi ahal izan dioten maisu-maistra askori, gainera, ordukako kontratuak egin dizkio Hezkuntza Departamentuak, eta, ondorioz, baldintza kaskarragotan gelditu izana salatu dute.

Lanpostuen murrizketaren ondorioz, geletan ikasle gehiago sartu behar izan dute, Nafarroako Gobernuak %10 igo baititu gehienezko ratioak. Lehen Hezkuntzako geletan 27 ume sartu ahal izango dituzte orain (lehen 25ekoa zen gehienezko kopurua), eta DBHn 32 haur jarri ahal izango dituzte gela berean (lehen 30 baino gehiago ezin ziren sartu legez). Ratioen berrantolaketak behar bereziak dituzten ikasleen geletan ez zuela aplikatuko esan zuen bere garaian Hezkuntza Departamentuak, baina, eskola-sartzean agerian gelditu da gela horietan ere haurren kopurua igo egin dutela.

Ikasle pilaketari dagokionez, Tafallako Garces de los Fayos ikastolako guraso eta irakasleek alarma piztu dute ikasturtea hastearekin batera. Nafarroako Gobernuak ikastolan gela gehiago irekitzeari uko egin dio, eta ondorioz, legeak ezarritako ikasle kopurua baino handiagoa hartu beharko dute DBH Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bi mailatan: 38 ikasle sartu beharko dituzte lehen mailako gelan eta 33, hiru-garren mailakoan. Tafallako ikastola



Murrizketa handienak Nafarroan pairatuko dituzte aurten, Raxoiren mozketak guztiak onartu baititu Barcinaren Gobernuak

da ingurune horretan euskaraz irakasten duen ikastetxe bakarra

Irakasle lanpostuak kentzeaz gain, Nafarroako Gobernuak irakasleei eskola-ordu gehiago jarri dizkie, Espainiako Gobernuak proposaturiko mozketak jarraituz. Aurten, beraz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleek 25 eskola ordu izango dituzte, iaz baino bi ordu gehiago; eta Bigarren Hezkuntzakoek 20, iaz baino bi gehiago.

Eskola orduak gehitzeak ez du esanahi, ordea, lansaria igo egingo denik. Kontrakoa. Sare publikoko irakasleek aurten ez dute Gabonetako aparteko lansaria kobratuko, eta horrek, *de facto*, soldata jaistea esan nahi du. Itunpeko sareko 2.000 beharginek jasoko dute aparteko lansari hori, baina soldatak % 2,5 jaitsiko dizkiete, Nafarroako Gobernuak iaz baino 4,2 milioi euro gutxiago emango baititzio ikasturte honetan itunpeko sareari.

Espainiako Gobernuak ordezkapenen auzian ere sartu du eskua, eta Barcinaren Gobernuak Wert ministroaren murrizketak osoki aplikatuko dituenez, Nafarroako ikastetxeetan irakasle bat falta denean bi astean ez da ordezkorik hartuko.

## Ikasle gehiago, baina 'baliabide bertsuak'

Arabako, Bizkaian eta Gipuzkoan Espainiako Gobernuak agindutako murrizketak ez dituela aplikatu esan du Isabeel Zelaia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, baina datuek besterik diote: Hiru lurraldeetako ikastetxeetan iaz baino 6.800 ikasle gehiago izango dira aurten —guztira, 356.421 ikasle—, eta baliabideak “bertsuak” izango dira. Ondorioz, baliabide bertsuekin lan handiagoari aurre egitea murrizketa dela salatu dute sindikatu eta eragileek.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskolak “murrizketatik libre” daudela





esan du, ordea, Zelaak kurtsio hasieran; irakasleek ez dituztela eskola-ordu gehiago emango adierazi du, ez dutela geletako gehienezko ikasle kopurua gaindituko eta irakasleen ordezkapenak ez dituztela atzeratuko ere esan du. Eragileek, sindikatuek nahiz EHIGE gurasoen elkarteak salatu dute Hezkuntza sailburuak ezezkoa esanagatik, egon badaudela murritzetak. Eta gauza bera esan dute heziketa bereziko langileek ere, euren esparruak mozketak pairatu dituela deitoratu baitute, eta adierazi dute Zelaa ez dela ari betetzen iaz akordioa sinatzeko lortutako oinarriak.

Lanpostuen kopuruaz gain, ratioak eta ordezkapenak hiru lurralde haue- tan ere auzitan daude. Sindikatuek jakinarazi dute 300 bat irakasle faltako dire- la aurten, eta geletan ikasleak pilatu behar izan dituztela, ikasle kopurua ha- zi egin baita. Haur Hezkuntzan, adibi- dez, 2 urtekoen geletan 20 ume sartuko dituzte modu orokorrean, 18ren le- kuan. Eta gainontzeko geletan ere ikas- le kopuru maximoa % 10 igotzeko au- kera egongo da ikasturtea hasita iristen diren ikasleak etorritz gero.

Itunpeko sareko ikastetxeetan are gehiago pilatu litezke ikasleak, Zelaak kopurua handitzeko aukera jarri baitu mahai gainean, Hezkuntza Sailak EAE- ko aldizkari ofizialean argitratu zue- nez. Ikastolek aukera horren aurka egin zuten, Zelaaren agindu hori bete- tzekotan 35 ikasle ere pilatu beharko baitzituzten geletan, eta azkenik, neu- rri horretan atzera egin du Jaurlaritzak. Ikasturtea Haur Hezkuntzako gela be- rri batzuk sorturik abiatu dute ikasto- lek, baina DBHn eta Batxilergoan ge- lak gutxitu egin dira, ikasle kopurua handitu egin den arren. Haatik, Ikasto- len sareko lantaldeari eutsiko egingo

## Euskarazko matrikulazioa geraldian dago

Ikasle kopurua hazi egin da ikasturte honetan, eta baita euskaraz ikasten duten haur eta gaztetxoena ere. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeetan euskarazko eredia da nagusiena, ikasleen %61,4 ari da D ereduan. Lanbide Heziketan oraindik ere A eredia da nagusi, aldiz, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzak %4,9 dira A eredukoak, eta %6,7 Lehen Hezkuntzan.

Nafarroan, aurtengo datu zehatzik oraindik ez badago ere, iazko joerari eutsiko zaiola sumatzen da, hau da igoera gelditu egin dela. 1992-93 ikastur- tetik 2002-2003 ikasturtera ia hamar puntu igo zen D ereduko ikasleen kopu- rua, %12,7tik 21,4ra. Aldiz, hamar urtean geratu egin da igoera, hazi den arren, 3 puntu ere ez baita hazi, %24,7ra. Datuek argi uzten duten eran, TIL eredia sartu izanak eragin zuzena izan du euskarazko ereduaren geldialdiarekin. Aurten, gainera, 40 eskolatan ezarriko dute ingelesa eta gaztelania oinarri di- tuen eredia.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan euskaraz ofizialtasunik ez duenez, hango ikasleek ez daukate aitortua euskaraz ikasteko eskubidea. Se- askakoak dira euskaraz murgiltze eredia eskaintzen duten ikastetxe baka- rrak, beraz, Iparraldeko ikasleen %6k estudiatzen du euskarazko ereduan. Sare publikoko eskola elebidunen kopurua ere igo egin da ikasturte honetan, baina, oraindik ere, zenbait lekutan irakaskuntza elebiduna oso gutxi zabal- dua dago sare publikoan; Baionan, esate baterako, lehen mailetan 38 haur besterik ez daude L'Argente eskola elebidunean, Zuraideren gisako herri txi- ki batean bezala; eta Maulen, kasu, ez dago eskaintza elebidunik, Zuberoan Alzainen bakarrik ikas baitezakete elebiz (22 ikasle ditu eskolak). Gainera, eskola publiko elebiduneko Ikas Bi guraso elkarteak salatu du Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez dituela euren eskura jartzen behar beste euskara irakasle.

diote, eta baita soldatei ere.

### Ipar Euskal Herrian, bestelako ahaien zain

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zu- beroako ikastetxeetan ere matrikulazio datu zehatzik emangabe hasi dute ikas- turtea, 50.000 ikasle inguruk. Horieta- tik, 5.000 eskola publiko elebidunean hasi dira; sare pribatuko eskola giristi- no elebidunetan 16.359 —batzuek frantseseko ereduan, eta besteak elebi- dunean— eta 3.000 Seaskaren ikaste- txeetan. Aurten, gainera, Seaskask 30.

ikastetxea irekiko du Ziburun, traba as- ko gaintu ostean, baimena lorturik. Ziburu zen Lapurdiko kostaldean ikas- tolarik ez zeukan herri bakarra.

Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan ez dira murritzeta hotsak Hegoaldeko- etan bezainbeste entzuten, krisi hotsak ez baitira Hegoaldean bezain ozen en- tzuten. Baina, hala eta guztiz ere, pro- testekin hasi dute ikasturtea Nafarroa Behereko eta Lapurdiko hainbat ikas- tetxetan, Frantziako Hezkuntza Minis- terioak murritztu nahi dituen irakasle postuengatik.



# Murrizketen eta erreformen ikasturtea

## Raxoi atzera, Hollande aurrera

Murrizketez gain, erreformen ikasturtea izango da hau. Hegoaldean, Espainiako Gobernuak hezkuntza erreforma aplikatu nahi baitu. Halaxe adierazi zuen Jose Ignacio Wertek ministro kargua hartu zuenean: “Lehentasunezkoa murrizketak egitea da, eta garrantzizkoa erreformak egitea da”.

Hezkuntzako Lege Organikoa erreformatzeko aurreproiektua egin du Wertek, ikasturte honetan Espainiako Kongresuak legea onartu dezan. Frantziako osteko zazpigarren lege organikoa litzateke hau, azken aurrekoa 2006an jarri baitzuen indarrean Jose Luis Rodríguez Zapaterok. Eragileek aurreratu dutenez, 60ko hamarkadako oinarriak gogorazten ditu Wertek proposamenak, erreforma pedagogikoa ez eta guztiz ideologikoa omen delako: autonomien eskumenak murriztu eta zentralizazioa du helburu, hala curriculumeko edukietan, nola antolaketa-ereduan ere.

Curriculumari dagokionez, eskola orduen bi herenetan lantzen diren edukien %65 Espainiako Gobernuak erabakiko luke aurrerantzean, gaur egun, edukien %55ean esku hartzen du, eta gainontzeko %45aren gaineko erabakia Eusko Jaurlaritzaren edo Nafarroako Gobernuaren esku dago. Matematika, Gaztelania eta Ingelesa indartu nahi ditu, eta Historiako eskolek izan dezaketan “kutsu identitariora” deuseztu nahi du. Antolaketaari dagokionez, administrazioak izango du ikastetxeetako zuzendariak aukeratzeko azken hitza, eta eskola-kontseiluek erabakimen gutxiago izango lukete.

Ebaluazioan ere aldaketak izango

dira, azterketak ekarriko baitira sistemaren oinarria. Irakats-aldi bakoitzaren amaieran “azterketa nazionalak” egingo dira, eta, horrez gain, selektibitatea kendu bai, baina unibertsitate bakoitzak sarrera-azterketa egin ahalko du. Azterketan emaitzekin eskolen rankingak egingo dira, eta ikasketetan ezin dabiltzanak lanera azkarrago bideratuko dira, 15 urterekin hautatu behar harko baitute Batxilerrerako edo Lanbide Heziketarako bidea.

Frantziako Estatuan ere aldaketa

### Aldaketa politikoak

Frantziako eta Espainiako estatuak aplikatuko dituzten erreformez gain, Hego nahiz Iparraldeko tokian tokiko administrazioetan ere aldaketak izan litezke ikasturte honetan, eta hezkuntzan eragin dezakete. Lehenik eta behin, hilabete honetan bertan EAEko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dira, eta horrek Hezkuntza Sailera egiturazko nahiz edukizko aldaketak ekar ditzake. Ikusteke legoke Isabel Zelaak abian jarritako proposamenak zertan gelditzen diren. Nafarroan ere hauteskundeak udaberrira aurreratuko diren hotsak dira, eta horrek ere Hezkuntza Departamentuan aldaketak ekar ditzake. Iparraldeari dagokionez, oraindik hautetsiek abiatu berterik egin ez duten arren, ikusteke dago Lurralde Elkargoak zer nolako emaitza politikoak izan ditzakeen, eta hezkuntzan hiru lurraldeentzat eskumenik lortzen ote den.

hotsa entzuten da hezkuntzan. François Hollande presidente sozialistak, hauteskundeetan hezkuntza lehen lerroan jartzeko promesa egin zuen, eta behin presidentziara iritsirik, hezkuntzaren gaineko hausnarketa abiatu du, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikastetxeetan ondorioak izango dituen prozesua, beraz.

Hollandek argi esan du errotik aldatuko duela Nicolas Sarkozyk garatu duen hezkuntza politika. Hollanden— eta Vincent Peillon Hezkuntza ministroaren— aldaketa hori antolaketa eta edukiei lotuko zaie. Antolaketa dago-kionez, Sarkozyk 13.00 postu kendu zituen azken urteetan, eta Hollandek, berriz, 4.800 postu sortu ditu (zehazteke dago horietako zenbat izango diren Ipar Euskal Herrirako). Edukiei dagokionez, hezkuntzak transmititu behar dituen balioen inguruko eztabaida mahai gainean jarri du Hollandek, eta aurreratu du moralalaikoa irakatsiko dietela estudianteei. Hala ere, argitu du, asmoa ez dela erlijioen kontrako mezurik zabaltzea. Gaur egun ere Iparraldeko ikastetxeetan badute Heziketa Zibikoa ikasgaia, eta besteak beste, *Marsellaise* ikasten dute haur eta gaztetxoek.

Hezkuntzaz promesa ugari egin zituen Hollandek hauteskundeetan, bereziki irakaskuntza publikoaren baloreak nabarmendu zituen. Promesak Ipar Euskal Herriko hezkuntzan nola egikaritzen diren ikusteke dago. Haatik, Euskal Herriko auzi politikoak oso promesa gutxi egin zuen presidentegai zenean, eta horrek ere izango du, edo ez du izango, euskal hezkuntzaren sistemaren eraginik.







**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE  
HUMANIDADES Y  
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

2012-2013  
IKASTURTEA



IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUEK  
KEZKATZEN ZAITUZTE ETA HONEN HOBEKUNTZAN  
LAN EGIN NAHI DUZU?\*

**BERRIMET.** BERRIKUNTZA DIDAKTIKO-METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN  
GARAPENA ETA KUDEAKETA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN Unibertsitate  
Masterra. %100 Online.



MUNDU GLOBALIZATUAK HEZKUNTZAN ERAGINDAKO  
EGOERA ELEANITZ ETA KULTURARTEKO  
BERRIETARAKO PRESTATUTA EGON NAHI DUZU?

**EKOMU.** HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANIZTUNETAN  
Unibertsitate Masterra. %100 Online.



IKASI DUZUN GRADUA IKASI DUZULA, IRAKASLE  
MODUAN IKUSTEN DUZU ZURE BURUA?

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN, LANBIDE  
HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO  
GAITZEN DUEN Unibertsitate Masterra.



EUSKAL KULTURGINTZAREN TOPAGUNEAN PARTE  
HARTU NAHI? ATZOKO, GAURKO ETA BIHARKO KULTURGINTZAREN  
TRANSMISIOA: ESPERIENTZIAK ETA KUDEATZEKO BIDEAK.

**EKT.** EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA Aditu Titulua.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA · Dorleta z/g, 20540 Eskoriatza · Tel. 943 71 41 57

# iñaki murua



## *ELKARRIZKETA*

Bertsolaria eta irakaslea

“Alanbrean ibiltzea da bertsolariarena; eta irakaslearena ere bai ”



**Iazko ikasturtean Euskal Herriko 374 ikastetxetan landu zuten bertsolaritza, 20.000 ikaslek baino gehiagok. Bertsolaritzak inoiz baino leku handiagoa du, beraz, eskolan. Gaurkoan, alabaina, bertsolaritzak eskolari –hezkuntzari– zer ekarpen egin diezaiokeen aztertu nahi izan dugu Iñaki Muruarekin. Izan ere, bertsolaritzak baditu heziketarekin oso lotuak dauden hainbat ezaugarri, pentsaraztea eta hausnartzea, adibidez, baina baita hizkuntzarekiko trebetasuna, umorea eta sormena ere. Irakasleak erabil ditzakeen ezaugarriak guztiak.**

**Bertsolari eta irakaslea da Murua (Gabiria, 1956). Lehenago hasi zen kantuan, eskolak ematen baino. Bertsozale Elkarteko lehendakaria da gaur egun, eta, azken 32 urtetan, Goierri eskolako irakaslea. Filosofia eta hiritartasuna eta euskara ematen ditu gaur egun batxilergoan. Irakaslearen rolaz ere hausnartu digu, bada, Muruak.**

**Nolako irakaslea ez zuen izan nahi ikasi zuen lehenengo, umetan Gabirian jasan behar izan zuen Leongo maisu bati “esker”. Baina irakaslea baino gehiago, hezitzailea da Murua, halaxe aldarrikatzen du berak, “ez luke existitu behar irakasleak, hezitzaileak bakarrik existitu behar luke”. Haurrari edo gaztetxoari begietara begiratu eta estu ala gustura dagoen dakien hezitzaile integral hori estimatzen du.**



**Zuk esana da, negatiboak garela euskaldunak genetikoki, urtetan bizi izan dugun mendekotasun egoeragatik. Bakazioetatik bueltan, aldarte positiboarekin ala negatiboarekin hasi zara lanean?**

Negatiboa baino, ez-etik eraikitzen ohitutako jendea gara euskaldunak, zerbaiten kontra eraikitzen ohituta. Zerbaiten kontra eraikitzen ari denak, kontra egiteko motibo hori desageritzen zaionean, ez daki lehen esku izan eta berak berria eraikitzen. Baina hori akats historiko bat da. Gure izaera euskalduna eta euskal kultura eta euskal kutsua daukan edozeren kontra aritzen diren horiei “esker” gu beti haien kontra mugitu gara. Baina eraiki, positiboak eraikitzen du.

Eskolan, aurten zehazki, ez dut uste positiboan hasteko motibo asko dagoenik. Iparraldean ikastoletan eta eskoletan itxialdiak egiten aritu dira gurasoak; hemen ere, Tafallako ikastolan gela bakarra utzi dute 38 umerentzat; Isabel Zelaa, berriz, murrizketarik ez dela egon esaten saiatu da, eta hori esatea lotsagarri iruditzen zait, hezkuntza dagoen egoeran egonda, aurrekontua ez ugaritzea, berez, kenketa baita. Gauza batzuetan ondo iruditzen zait murriztea; hona, adibidez, 120 bat agenda iristen ziren urri bukaeran azal gogorreko eta sekulako detaileekin eginda, eta paketea askatu ere egin gabe gelditzen zen. Ongi etorri bedi krisia begiak irekitzen laguntzen digun neurrian.

**Egoera horretan, irakasleak baikor izateko ze motibo du?**

Hau, Goierri, eskola publikoa da izaeraz eta joeraz, baina ez da administrazio publikoarena, udalena eta en-

presena da. Batxilerrean, lehenengo urtean, 21 ikasleko hiru talde dauzkagu, eta hori benetan sari bat da. Gizarteak –udal, enpresa eta gainerakoek– egiten duen ahaleginari zor diogu. Alde horretatik, pozik.

Gainerakoan, irakasle izatea pribilegio bat dela iruditzen zait, maila haueetan eta denetan. Funtzio erabat positiboa eta beharrezkoa ari zara burutzen. Gaurkotuta baldin badaukazu zure pentsamoldea gizartearen zerbitzura lanean ari zaren pertsona bat zara, eta zure gizarteari ahalik eta ekarpen onena egiteko aukera daukazu; noski, kale garbitzen ari denak ere aukera bera edukiko du, edo baserritarrak ere. Baina gure eragina zuzenean hurrengo gizartearen eraikitzen saiatuko direnengan daukagu, eta hori luxu bat dela iruditzen zait. Pertsonekin ari gara tratuan. Hemen, 16 urteko pertsonak sartzen dira, gazte, eta horien nortasuna eraikitzeko ahalegin horretan mugarri garrantzitsuak izan gaitezke. Denok dakigu 16 urterekin gazte batek bere nortasuna gurasoen nortasunaren kontra eta irakaslearen jarreraren eta esanahi dugun horren kontra eraiki ohi duela. Guk konfliktu hori onartu egin behar dugu, pertsonen nortasun eraikitzaile bezala, eta horrela bideratu; orain, konfliktu ulertzen badugu “ni Iñakiren kontrako” bezala, aukera erabat galtzen ari gara. Alde horretatik, nik oso positibotik hasi dut ikasturtea eta horrela etortzen naiz, oso gustura.

**Hemen bertan estudiatu zenuen. Eta gero, zenbat urte daramatzazu Goierri lanean?**

24tik 56ra, 32 urte. 14 urterekin hasi nintzen hemen estudiatzen, 70ean, elektrizitateko maestria egiten. Gure belaunaldi denari bidean tokatu zaigu irakasleren bat oso euskaltzalea zena, egoera irauli nahi zuena. Hau lapiko bat irakiten zen, gu ikasleok parte hartzen saiatzen ginen, eta guraso elkarte bat zegoen buru, elementu batzuk oso interesanteak zituena, eta haiekin asko ikasi genuen. Egundoko aldaketa izan zen. Guretzat mundua alderantziz

# iñaki murua



“ **Transmisioa horrek gauzatzen du: zuk bizi izan dituzun estutasun horiek erakusten dizute zure ondoren datorren gazteari alanbretik eroriko dela erakusten eta ikusarazten**

”

“ **Ez luke existitu behar irakasleak, hezitzaileak bakarrik existitu behar luke**

”

buelbaka jartzea izan zen.

5 urterekin, Gabiriko eskolan hasi nintzen, eta Leongo maisua nuen nik. Berak ez zekien tutik euskaraz eta nik ez nekien tutik erdaraz. 14 urteak arte zenbat sufritu genuen! Dena buruz ikasten: *lagos, golfos, volcanes, cordilleras...* eta guri berdin zitzaigun *volcán* esan edo *cordillera* esan, ze ez genuen bereizten, dena memoriaz ikasten genuen. Hutsune hura oraindik ez dut berreskuratu. Oker eta ohitura txarrez ikasitako zera hura, ulertu gabe ikasitako hura, *la letra con sangre entra* hura ez dut oraindik behar beza-la gainditu.

**Etxeko girotik eskolako girora, aldaketa oso handia izango zen garai hartan, ezta?**

Traumatikoa izan zen. Etxeko jendea, orokorrean, maisu, apaiza eta medikuen lagunak ziren, itxura batean behintzat; edo kontra ez zuten egiten behintzat. Haiek gizartean zeukaten pisua gogorra zen. Guretzat egundoko oxigenatua izan zen Gabiritik hona etorri, eta hemengo irakasleak, estiloa, gazteak, bizarra, hika hitz egitea, euskaraz hitz egitea, klase gutxi batzuk euskaraz ematea... Hori guretzat ikaragarriko salbazioa zen. Gauzak ulertu egiten genituen, ez ikasi behar zirelako ikasi... Ordura arte berdin zitzaigun Hungaria Bukarest, eta Errumania Budapest esan, edo alderantziz. Berdin zion.

**Txikitako irakasle hark eraginik izan du zure irakasle lanean?**

Nik ikasleei esaten diet, irakasle on batekin ikaragarri ikas liteke, eta txar batekin, beste hainbeste. Zer ez duzun izan nahi eta izan behar, hori ere ikas dezakezu irakasle txar batekin. Eta on batekin, bestelako adibideak. Guretzat oso txarra izan zen hura, eta hutsune bat gelditzen zaizu ikasteko metodo erabat desastre, antolatu gabe horregatik. Txikitatik nahiko birjin daukazu-nean ikasteko sistema, burua hutsik eta garbi, dena perzeptibo zaudenean jasotzen duzun eredu horrek hutsune

handi samarra uzten dizu. Eta, orain, saiatzen naiz justu kontrakoa egiten.

**Leongo maisu haren garaitik, aldatu da irakaslearen rola, beraz.**

Ni ez nintzateke eskola batera irakastera bakarrik etorriko. Gaur, irakasteko nik baino gehiago dakiten bitarteko asko dauzkagu, teknologiak, Google, liburuak... eta eskura dauzkate gazteek. Ze adibide, ze argazki eduki behar dute aurrean errespetuari buruz, pazientziari buruz, egoten jakiteari buruz, entzuten jakiteari buruz... Erreferente bat da aurrean eduki behar dutena. Ez luke irakasleak existitu behar, hezitzaileak existitu behar luke bakarrik. Baserritarra baserritarra da, ez da baserriko langilea. Ez da joan eta behiari eta ardiari jana bota eta alde egiten duena; behiari jana botatzen dio, behiaren begiradari begiratzen dio, tristeza daukan ala ez, tristeza baldin badauka belarria ukitzen dio, tenperatura ondo daukan ala ez... Hori dena egiten duena da baserritarra. Historikoki tokatu zaion iraunkortasuna eta burujabetza jokatzen ari da, eta autoestimua ere bai, berea eta abereena. Eta guk, zorionez, pertsonak dauzkagu. Eta pertsona horrek, gure aurrean bizi duen lasaitasuna edo estutasuna edo gozamina, begiradatik interpretatzen jakin egin behar dugu. Irakasle izanda, maila hauetan, ezin gara konformatu eta gelditu. Ez luke existitu behar maila hauetan irakasleak, maila hauetan hezitzaileak egon behar luke.

**Eta adin txikiagoetan?**

Txikiagoetan oraindik nabarmenagoa ikusten dut nik. Gorago, trainingak eta orientatzaileak daude, zer egin behar duten esan, eta apoioko pertsona bezala lan egiten dutenak, pertsona bakoitza beretik eraikitzen joan dadin. Nik uste dut hezkuntzaren txipa aldatu dela, eta aldatzen joan beharra daukagula. Jendeak esaten du gaurko gazteek ez daukatela nortasunik; nortasuna ardurak hartzen zoazen neurrian doa eraikitzen, eta gaur ze aukera dauzka gazte batek?





### **Bertsolari izatea eta irakasle izatea oso ondo ezkontzen dira. Zein da bertsolaritzak eskolari –edo hezkuntzari- egin diezaiokeen ekarpena?**

Nik ez daukat ihes egiterik horri. Ezin dut bat etxean utzi eta bestearekin etorri. Bertsolaritzak hezkuntzari eman diezaiokeena uste dut dela hizkuntzaren sailkapen bat, tonu berdean erabili nahi duzunean hizkuntza, edo tonu aseptiko batean, edo tonu marroian, edo tonu grisean, tristura, beltzean... Hiztegia ordenatzeko aukera eta beharra ematen dizkizu bertsolaritzak. Hizkuntza ordenarazten dizu, eta zeuri konturazten dizu sinfonierraren ze kaxoi daukazu hutsik. Hizkuntza erabiltzeko garaian jakin behar da aurrean daukazu publikoa zer nolakoa den, talde bat eta bestea ez dira sekula berdinak, eta irakasle bat eta bestea ere ez. Malgu jokatu behar da.

Ez dut nahi, ezta ere, bertsolaritza inork har dezan panazea gisara, ez dut inbidia gehiago elikatu nahi. Gabirian eta hemengo herri txikietan, betitik euskaraz bizi diren eta egin duten horiek ez dira bertsolariak, baina bertsotan bezain airoso egiten dute ziri-joko adar-jotze horretan, horra noa ni. Gaurko gizarteko euskaldunak non ikasten du adar-jotze ziri-sartze horretan?

Ez dut uste bertsolaritzak beste aukerek daukaten baino balio edo dirdira gehiago daukanik, ez, landu egin behar dira antzerkia eta beste aukerak ere jendea motibatuz euskara erabiltzera, balioko hizkuntza bezala. Iruditzen zait askok konpromisozko hizkuntza bezala erabiltzen duela euskara. Kuadrillan erabat erdaraz egiten dute gurasoek, halaxe ohitu direlako, eta hortxe sentitzen dira eroso eta gustura, eta gero umeek euskara ikas dezaten nahi dute eta haiei hala egin behar diete. Baina bere ohituraz, erdaraz ematen dio erosotasuna, eta hori da gure gerra. Hori nola gainditu liteke? Hezkuntzan asko egin liteke, baina asko egin liteke erakarri, jendea hizkuntza batean gustura sentiaraziz, eta polit eginez. Baina momentuko freskura horrekin eta gauza berriak sortuz.



**Filosofia, eta hiritartasunaz gain, euskarako irakaslea zara. Hemen, Goierriko eskolan, soziologia berezia biltzen da: familia euskaldunetako seme-alabak batetik; familia erdaldunetakoak izanagatik, txikitatik euskaraz alfabetaturiko gazteak bestetik; eta, azkenik, duela gutxi atzerritik etorritakoak, euskaraz eta euskal kulturaz deus gutxi dakitenak. Nola gerturazten zara guztiengana?**

Oso maila polita dakar jendeak ulermen aldetik. Zuk esan duzun horri guztiari erantsi behar zaio Sakana. Hasi Bakaikutik eta Altsasuraino, eta Bakai-kuko eta Altsasuko errealitatea ez dira bat. Hori ere hemen biltzen da. Ulermen mailan oso euskara polita dakar jendeak. Gero arazoa da adierazkortasunean. Nola gerturatu? Ni saiatzen naiz ahal den adibide gehien jartzen, Lazkao Txikirenak, Antonio kalekoarenak...

#### **Ezagutzen dute Lazkao Txiki?**

Bai, askok ezagutzen dute. Haien-tzako marrazki bizidunetako existitu ez den asmatutako pertsonaia bat da. Flipatu egiten dute ni harekin bertsotan ibilitakoa naizela esatean, eta anekdotak kontatzen hasten naizenean, ondo pasatzen dute, eta ulertzen dute, eta gustura egoten dira. Ni haiengana euskaraz hurbiltzeko bide bakarra da. Bai-

na ez dut intentatu ere egiten euskaraz txiste bat kontatu dezaten, ezin dela kontatu iruditzen zaie. Ni hizketan entzunda, eta haren anekdotak eta pasadizoak kontatzen, sinetsiko dute badaitekeela.

Umorea eta hikak ematen digun aldeko haizea baliatu dezagun jendeak euskaraz egin dezan. Nik hori baliatzen dut. Niri “zintzaizkidake” edo zuhaitzak egiten aritzea... Ba begira, zer esatea nahi duzu, hemen urtetan eta mendetan euskaraz egin duenak “zintzaizkidake” ez dakit behin ere esan duen, eta euskaraz bakarrik bizi izan da jende hori. Ez noa zuhaitzak eta subjektua... ez, nahiago dut praktikan, entzun, egin, erabilarazi eta gero, umorea landu. Umorea landu ahal den freskoena, eta bat batekoena.

**Hausnartzea, pentsaraztea... pertsonaren heziketan ezinbesteko diren ezaugarriak ditu bertsolaritzak. Eskolak horrelako balio horien inguruan huts egiten duela esaten da maiz. Bertsolaritza ez da panazea, baina baditu ezaugarri hezitzaileak, ezta?**

Bertsolaritzak berniz bat ematen dio pertsonari. Pentsaraztetik batik bat, eta umoretik ere bai, eta euskara sakontzetik ere bai. Laguntzen dizu besterena entzun eta indartzen; bertsoa aditzen ari denak antzeman egiten dio pertsonari entzuten ari den ala ez. Politikoen debateak dira horren eredu kon-



# iñaki murua

## E

“Umorerik ez duena, ez da hezitzailea”

“Ikaslea ezagutu gabe klaseak ematen ari denak balio du klaseak emateko? Bere betekizuna ondo betetzen ari da?”

trakoa: bat hizketan ari denean bestea ia sekula ez da egoten entzuten, eta bestearena ia entzun ere egin gabe plasta botatzen dio. Trenaren bi gurpilak bezala, elkarren parean joan daitezke, baina ez dira sekula elkarrengana hurbilduko.

### Umorea aipatu duzu. Beharrezkoa da hezkuntzan?

Umorerik ez daukan pertsona ez da hezkuntzarako. Umorerik gabeko pertsonak, sentitzen dut, igual motiboak izango ditu umorerik ez edukitzeko, baina normal bizi den pertsona batek umorea eduki behar du, eta bereziki, irakaskuntzan ari den pertsona batek umore handia eduki behar du. Eta sormena. Askotan esaten dut, irakasle barentzat suerte handi bat litzatekeela kurtsu biz behin lapurtxintxoia etorriko balitz eta disko gogorra harrapatuko balu, eta, orduan, sortu egin behar. Betiko adibideak, betiko txistek... albo batera utzi beharra izatea ona litzateke. Nik galdetzen diet errepikatzen ari direnei, tarteka, ezer berririk entzuten duten nire adibideetan... esaten diet gustatuko litzaidakeela %70a errepikatu gabea ematea.

Jendearekiko feed-backa ere garrantzitsua da. Zuk badakizu noiz bota duzun jendearen gustuko zerbait, erreakzioa berehalaxe jasotzen duzu. Nik uste dut hezkuntzan hanka-sartze handiena izan litekeela momentuko hori pasatzen uztea; irailaren 5ean hasi zara, eta ebaluazioa daukazu urriaren 17an, eta urriaren 17an irteten duena bakarrik kontuan izatea. Ikaslea momentuan benetan egiten ari dena ez da baloratzen. Iruditzen zait bertsolaritzak daukan bat-bateko ezaugarri horiek hezkuntzan gehiago txertatu beharko liritekeela. Izan ere, ez dira bertsolaritzarenak bakarrik diren ezaugarriak. [Antonio] Cancelo kooperatibistak esaten zuen, tabernako barran lanean, urtebetez edo bi urtez, aritutako gazte titulu-dunak nahi zituela.

### Zergatik esaten zuen hori?

Gazte horrek, azkenerako, ikasten



du atean

sartzen dena

zer estilotakoa den, zer egitera datozen, pazientzia ikaragarri eduki behar du... Psikologia pixka bat. Eta iruditzen zait irakasleak ere hori egin behar duela. Orain dena formulak dira. Tutorea izateko titulazioa, orientatzailea, psikologoa, irakasle soila... Eta hezitzaile integral hori nola lortzen da horrela? Titulu denak lortzeko astirik eta aukerarik ez daukazu. Esperientziak ze balio du? Ikaslea ezagutu gabe klaseak ematen ari denak balio du klaseak emateko? Bere betekizuna ondo betetzen ari da? Baliteke ikasleak irakaslearekiko ezer, hurbiltasunik edo enpatiarik edo sinpatiarik ez badu sentitzen, ikasitakoa maila berean barneratuko du, edo interes berdina piztuko dio? Nik uste dut pertsona, oraindik ere, teknika eta teknologia guztien ginetik dagoela, eta titulu guztien ginetik. Eta eskarmentua eta konfiantza eman beharko genizkioke ikasleari, dagokiona garatzeko aukera. Eta, batik bat, pertsonarekin daukan tratua hori aberasteko aukera, eta erantzunak emateko aukera. Asmatuko du edo ez du. Azkenean, ebaluatzen duguna kontzeptualki selektibitatean da, gizarterako balio duen ala ez non lortzen da? Azkenean, helburua gizarteratzea da, gizarte duin eta justu, eta orekatu bat eraikitzea. Zer egiten dugu lizentziatu tiranoz, fatxaz, misoginoz betetako gizarte batean? Non gelditzen dira gizartean integratzeko baloreak?

### Transmisioarena da Bertsozale

**Elkartearen zutabeetako bat. Hezkuntzan behin eta berriz entzuten da transmisioaren bat dagoela. Zuenean, ordea, funtzionatzen duela dirudi.**

Bertsolaritza, bolada batean, auten-



tikotasunaren zigilua zeraman pertsonaren dohain zerutiara izan da. Bertso eskolak sortu zirenean sekulako erresistentziak egon ziren, eta, oraindik ere, entzuten da bertsolari gazteak denak igualak direla eta denak igual kantatzen dutela, eta denak zozo batzuk direla. Gu geu ere, bertsoan hasi ginenean, 20 urte ez genituen edukiko, eta Telleria, Mendizabal, Lizaso eta ni Ereñozun bertsoan izan ginen. Saioa egin, eta bazkaritarakoan, aitona batek esan zigun, “zuek al zarete bertsolariak?”, “beno, bertsoan aritu gara”; “Txirrita zaharrak harrapatu bazintuzte, zuzitu egingo zintuzten laurok”. Harentzat, Txirrita hil zenez geroztik, ez zegoen bertsolaririk. Baina hori naturala da. Transmisioa egiteko garaian erresistentzia handiak egon ziren. Zorionez, Amurizak, kartzelan egon zenean, eduki zuen astia bertsolaritaz hausnarketa egiteko, eta jarri zuen dohain aparteko eta berezia omen zen hori ikasteko formatuan. Eta hortxe eman genion buelta. Eta hor buelta emateaz gain, asmatu genuen erakunde bat sortzen eta hezkuntzan sartzin.

Lehengo bertsolariak galdetzen zuten, “horren bertsoa zer duk, kupelekoa ala harkaitzekoa?”. Alegia, harkaitzetik irteten du benetako iturriak, eta bestea deposituan dagoen ura da, etxean ariketa asko egiten dituzu, eta, gero, *plast* botatzen duzu. Baina harkaitzetik jaiotzen den hura, behin jaiotzen da eta badoa, eta berriz jaiotzen segitzen du, ez da almagazaturiko jakintza pilo baten kalkoa.

### Hor irakaslearenak ere badu antzekotasunik..

Bai ba. Irakaslea zer da, kupelatik ari dena, ala urtero, aldiro berritzen ari dena? Aldiro berdin eta aldiro berri. Hori da lehengo bertsolariak galdetzen zutena.

Guk uste genuen irakaslearen funtzio bat zela bertsolaritza irakastea, baina ikusi dugu irakaslea jende aurrean bertsoan ez dela jarriko. Bertsoan aritzeko, irakasleak prest egon behar du jolas horretan sartzeko, eta errekurtsio-



ak eduki behar ditu onartzeko ez dela jainkoa, eta pozik egon ikasleek irakaslea gainditu dutelako. Baina ez da horrela, ohitzen ditugu ikasle denak estandarizatuta, guk baino gutxiago dakitela sinetsaraziz.

### Zuek nola asmatu duzue transmisio-lanean?

Guk transmisioa egiten asmatzen dugu bertsoetako ohituratik. Bertsoan, hamar mila lagun aurrean ari zara, eta ondokoak halako erantzun bat eman eta hamar mila lagun doblatuta barrez hasten direnean edo txaloka, eta zuk ez dakizu zer erantzun eta erantzun behar duzu 40 segundo baino lehen, bada, kakalari horrek ematen dizu gero gelara joan eta egoten jakite bat. Ikaragarria da. Transmisioa horrek gauzatu du: zuk bizi izan dituzun estatus horiek erakusten dizute zure ondoren datorren gazteari alabretik eroriko dela erakusten eta ikusarazten. Alabretik erori beharra daukala, erortzea zer den jakin, altxatzen asmatu, eta han mantentzen ikasiko duela.

Alabrean ibiltzea da bertsolariarena, eta irakaslearen kasuan ere berdin da: ez dakizu eroriko zaren ala ez. Irakasle batek ere ariketa horiek egin behar ditu. Irakasleak pertsonak direla gogoratu, baina irakasleak eurak ere bai, ez direla jainko. Bitarteko tekniko-teknologikoei garrantzia erabatekoa ematen badiezu, igual industria estiloko baserriak eraikiko ditugu, eta eskolan ere gero eta produktibitate handiagoko gelak izan ditzakegu, baina humanoa zokoratuta.

ten badiezu, igual industria estiloko baserriak eraikiko ditugu, eta eskolan ere gero eta produktibitate handiagoko gelak izan ditzakegu, baina humanoa zokoratuta.


### Eskolan ere produktuari, emaitzari, gehiegi begiratzen zaio?

Matematikako irakasleak buruketa jartzen die, eta, “emaitza hau da”, esaten die. Nik ezin diet Filosofian esan, “emaitza hau da”. Irakasle askok bere gaian horretara jotzen du, emaitzara. Eta erantzunetan ez bada azaltzen zuk eman duzuna, hau *resta* bestea *resta*, bestea gaizki... Baina, zein da bertso ona? Eta zergatik? Positibotik baloratu beste erremediorik gabe gelditzen zara bertsoan, bertsoaren alde ona bilatzera jo behar duzu. Zure helburua zein da? Jende horrek bertsoan disfrutatzea? Ba, positibotik eraikitzen hasi beharra daukazu, bestela, jai daukazu. Eta irakasleak, hasi boligrafoaren koloretik, eta ohitura negatibo hori daukagu. Txartel gorria nonahi...

Ea, ondo pasatzeko, zer ari da ikasten gaur egungo gaztea? Hori galdetu beharko genuke. Orain dela 80 urte, elizak eta kristautasunak zeukan indarrarekin, mundua sufritzeko eta zerua baldin bazen disfrutatzeke, ulertuko nuke, baina, orain, zerk eragiten du gero eta akademizistago izatea?

centroderecursos@alboan.org

# ELKARTASUNEAN HEZTEKO BALIABIDEAK ESKURA, KLIK BATEAN



Unitate didaktikoak  
jolas kooperatiboak  
musika pelikulak...

<http://centroderecursos.alboan.org>



Material guztiak hemen har ditzakezu

**Bilbao**  
Aita Lojendio, 2  
Tel. 944 059 567

**Iruñea**  
Avda. Barañain, 2  
Tel. 948 231 302

Laguntzaileak:





# **PARTAIDETZA:** **gurekin bada, izango da**



## **PROIEKTU PARTE-HARTZAILE BATERAKO ZEREGINAK**

**Proiektu batean inplikatzeko zer esan nahi duen sentitzeko, errealitatea aldatzeko dugun ahalmenaz baliatzeko, konpromisoa hartzeko eta prozesuaz gozatzeko proposamen didaktiko bat duzu hurrengo orriotan.**

# PARTAIDETZA: gurekin bada, izango da



**Marije APODAKA**



**Gotzon QUINTANA**



**Bea UGARTE**

"HAINBAT JATORRI ETA ESPERIENTZIA-EREMUTAKO PERTSONAK IZAN ARREN, HEZKUNTZA HOBETZEKO ERRONKEK BILTZEN GAITUZTE DUELA URTE BATZUK, HAINBAT PROIEKTUREN INGURUAN. TALDEKA BURUTUTAKO LANETAN BETI ISLATU IZAN DUGU HEZKUNTZARAKO GIZA ESKUBIDEAK, FEMINISMOAK, IKASKETA KOOPERATIBOAK, ESKOLA-KOMUNITATEAREN ELKARBIZITZAK ETA HEZITZAILEEN PRESTAKUNTZAK DUTEN GARRANTZIA; ETA HOBEKUNTZA HORRETARAKO ZABALTZEN DIZTUZTEN AUKERAK"

Hezitzaileen zeregina ikaslea bere garapen prozesuaren protagonista eta jabea izaten laguntzea bada, ezinbestekoa dugu baliabideak eskaintzea berak parte-hartze zuzena izan dezan. Beraiekin bada, izango da: beraiekin lorpenak, beraiekin akatsak, beraiekin ametsak, beraiekin frustrazioak; azken finean, norberak bere neurriko bizitza-proiektua gara dezan. Ibilbide horretan aurrera egiteko, eskolak aukera ezin hobea ematen digu taldeak duen potentzialtasunaz baliatzeko eta ikasleen aniztasunak taldea bera indartzeko.

## Aurkibidea

1. SARRERA
2. IBILBIDEA
3. I. MODULUA
4. II. MODULUA
5. III. MODULUA
6. KONTSULTAKO MATERIALAK, DOKUMENTUAK ETA LOTURAK



## 1. SARRERA

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo irakasleentzako material honetan, **giza eskubideen hezkuntzaren ikuspegitik diseinatutako** hainbat tresna biltzen dira, ikasleei beharrezkoak dituzten gaitasunak garatzen laguntzeko eta, gaitasun horien bidez, errealitatea aldatzeko, ongizate pertsonala hobetzeko eta pertsonen arteko harremanak sustatzeko, betiere, bizikidetasun positiboa garatzeko konpromisoa hartuta.

Ondorengo koadro honetan, giza eskubideen erreferentzia-esparru bat izan daitekeena proposatzen dizuegu, eta esparru horretan txertatu dugu gure proposamena, hain zuzen. Ikusiko duzue, hezkuntza-etapa guztiak hartzeko ahalegina egin da, eta prozesu bat gauzatzeko halako irimotasun edo jarraitutasun bat eskatzen du, zenbait interesguneetan, aukeratutako balioen sustapenean eta proposatutako aldagai sozioekonomikoen lanketan oina-

rrituta; horretarako, hiru modulu presatu dira, eta baita horiei dagozkien entrenamendu-prozesuak, emozioen lanketa eta proiektu parte-hartzaileak ere. Ondorengo orriotan dituzu horiek guztiak, xeheago garatuta.

Ez da koadro itxi bat, ez; areago, asmoen adierazpen bat da, eta koherentzia eta sistematizaziorako aldarrikapen bat, interesgune horietatik edo beste batzuetatik gai hori lantzerakoan kontuan hartuko dena.



Planteamenduaren barnean sartzten da eskolan gertatzen diren esperientziez, bizipenez eta interakzioez baliatzea, bai eta gure hezkuntza-asmoak, indarrak eta intentzioak auto-ebaluatzea ere; horrez gain, **proiektu parte-hartzaile txiki baten bidez sustatutako dugu geure burua, batez ere, herritartasun globalaren<sup>1</sup> dimentsioak eta norberaren autonomiari eta ekimenari egindako ekarpenak kontuan hartuta.**

Gai horri hezkuntzaren esparrutik

erantzun bat emateko modua da, ikasleei bizi-proiektuak diseinatzen, beren eskubideak eta betebeharrak ezagutzen, erabaki egokiak hartzen eta lankidetzaren ikuspegitik harremanak hobetzen laguntzea hartuta helburutzat. Asmo horiei begira, neska-mutiloi beren hezkuntza-prozesuetan parte hartzeko modua ematea da koherenteena, hau da, hezkuntza-proiektu parte-hartzaileagoa egiten saiatzea.

Gauzak eraikitzeko eta aldatzeko eskura ditugun estrategia ahaltsuen artean, hauek ditugu: gure **gaitasun eraldatzaileaz** jabetzea, bidegabekerietan parte ez hartzeko erabakia hartzea, eta konpromisoaren alde egitea. Baina hori guztia landu egin behar da, “trabatu” egin behar da, “entrenatu”, gure harremanak eta, nola ez, eskola bera ideiak alderatuz eta eragile guztien parte-hartzea sustatuz demokratizatu beharra dagoela jabetuta.

<sup>1</sup> Intermon-Oxfam (2009). Hegoa/UPV-EHU (2011)

**Parte hartzea eragitea da, erabakitzea, esku hartzea, iritzia ematea, iradokitzea, proposatzea, gure gogoz eta modu kontzientean prozesu ireki batean sartzea, eraldaketa eta autonomia pertsonala eta soziala sakontzeko eta horretarako aukera zabaltzeko.**

➤ **Zuen ikastetxeko errealitatea ezagutzen duzue; horretan oinarrituta, pentsatu zer prozesu aldatu nahi zenuketean, parte-hartzaileagoa izan dadin.**

**Prozesu horrek harremanak demokratizatzen ditu, eta funtzioen, erantzukizunen, esperientzien, boterearen, baliabideen eta abarren banaketa sustatzen du, gaitasun pertsonalak, sozialak eta herritartasunari dagozkionak garatzeko bidea errazteko.**

➤ **Beraz, beharrezkoa litzateke prozesu parte-hartzaile bat abian jartzea?**



### Parte-hartzearen definizio baterantz

Lehenengo, parte-hartze hitzaren definizio hau eskaini nahi dizuegu: *Parte Hartuz*<sup>2</sup> elkarteak dioskunez, “**pertsonen komunitate bat antolatzeko eta mobilizatzeko prozesua da, eta, berorren bidez, eragile- edo subjektu-funtzioa hartzen dute pertsona horiek beren gain, kolektibo horren etorkizunari begira**”. Jarduera pertsonal bat da, eta taldeko prozesu bat, eta hezitzailea, berdintasunean oinarritua, sortzailea eta eraldatzailea da, edo hala izan nahi du. Egiturazko desberdintasunak eta gatazka sozialak eta politikoak zokoratzeko edo leuntzeko tresna izan daiteke partaidetza. Ildo horretan, sistematikoki eta modu jarraituan egiturazko harreman asimetrikoetan eta gizartearen eta politikaren ikuspegitik

gatazkatsuak izan daitezkeenetan presente egotea da parte-hartzea; kontrajarrira dauden ideiak, balioak edo interesak adierazten dituzten eragileen eta gizarte-sektoreen arteko harremanez ari gara. Partaidetza horretan, alde batetik, beste aldeek beren boterea erabiltzea onartzen da, berori berriro banatuz eta eliteen eskuetan biltzea saihestuz; eta, bestetik, tradizioz gizartean kalte egin zaien edo baztertuta egon diren gizarte-sektoreek boterean sarbidea izatea onartzen da.

Horregatik, parte-hartzea **eraldatzailea** da, parte-hartze horren bidez kontzientziak esnarazi nahi direlako eta protagonistak aktibatu eta egoerak eta botere-harremanak aldatu nahi direlako; aldi berean, proiektuak eta gatazkak aldatu nahi ditu. Parte-hartzea

**hezitzailea** da, eragileen gaitasunak eta ahalmenak gararazten dituelako. **Berdintasuna** sustatzen du, kolektiboak, sektoreak eta pertsonak parekatu nahi dituelako (ekitatez), abiapuntua konstante hartuta. Azkenik, parte-hartzea **sortzailea** da, berriro egiten delako, bila ibilarazten gaituelako eta hainbat agertokitara eramango gaituzten irtenbideak bilatzen dituelako.

### Parte hartzeko baldintzak

Equipo Claves (1994) taldearen proposamena erreferentziatzen hartuta, bateratu beharreko hiru jardueraildo hauez hitz egin dezakegu:


- **Parte hartzen jakitea**; beharrezko prestakuntzan lan egitea, antolamenduarekin lotutako aldaketak egiteko ez ezik, maila sinbolikoan, gramatika kulturallean eta harremanak eta gizarte-interakzioak egituratzen dituen arau-sisteman trukeak eginarazteko (I. MODULUA).

- **Parte hartu ahal izatea**; parte hartzean oinarritutako diagnostikoaren eta plangintzaren ikuspegietatik eraikitzeko, erabakiak hartzeko eta horiek kudeatzeko aukera emango duten foroak sortzea (II. MODULUA).

- **Parte hartu nahi izatea**; prozesuan sartzeko motibazio gisa ulertuta (III. MODULUA).

<sup>2</sup> Parte Hartuz demokrazia parte-hartzailean oinarritutako ikerketa- eta prestakuntza-talde sendoa da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politikoak, Soziologia eta Hezkuntza sailletako kideek parte hartzen dute bertan –irakasleak, ikertzaileak, bekadunak, eta kolaboratzaileak–. Euskal Herrian, demokrazia parte-hartzailean oinarritutako prozesuak eta esperientziak sustatzen ditu, gainera, Parte Hartuz elkarteak.





Parte hartu nahi eta ahal izate horretan nahiz parte hartzen jakite horretan, oinarri-oinarrizkoa da **genero-analisiak** dakarzkigun aldagaiak kontuan hartzea, parte-hartze hori benetakoa eta berdintasunean oinarritua izan dadin; besteak beste, aldagai hauek:

- Parte-hartzaile bakoitzaren autoritate pertsonalaren ezagutza.
- Komunikazio-estilo desberdinak.
- Errespetuan oinarritutako protagonismo eraikitzailea.
- Norberaren eta besteen emozioen ezagutza.
- Neska-mutilen artean partekatuta-kolidergoa.

Azaldu dugunak zera iradokitzen digu: ikasgelan eta parte hartzeko gaitasuna sustatzeko esperientziak antolatzen ditugunean, alde batetik, animatuta egon behar dugu, **ikas daitekeen zerbait** delako, hobetu daitekeelako, pauso egokiak emanez gero; eta, bestetik, pazientzia handiz jokatu behar dugu, lor ditzakegun xedeak zehaztuz, parte-hartze mailak askotarikoak dire-

lako eta, gainera, ikasgelako errutinek irakatsi eta ikasteko estilo pasiboagoa helarazi dietelako ikasleei.

Gure zeregin hezitzailean, parte hartzeko lehen maila landu dugu, eta gure ikasleak adi egon daitezen ahalegintzen gara, **entzun dezaten**, garrantzitsuena idatziz jaso dezaten edota, areago, guri begira diezaguten eta une horri ez dagokion beste ezer egin ez dezaten. Batzuetan, ez zaigu erraza gertatzen maila hori lortzea ere.

Hurrengo urratsa ikasleek beren ekarpenak egitea litzateke, ikasleek esku hartzea, errespetuz eta jakiteko gogoz galdetzea, talde osoari entzuten jakitea, ikaskideen ekarpenak jasotzea, beren iritziak adierazteko aske eta eroso sentitzea, etab. Lankidetzat lortu dugula esango genuke, edota, areago, **kooperazioa**. Puntu horretan jada zeregin komunaren zentzua agertuko zaigula azpimarratu behar dugu: taldean lan egin nahi duten pertsona guztien eta bakoitzaren protagonismo eztabaidaezina eta, horrekin batera, taldeko lan

hori banakakoa baino eraginkorragoa eta atseginagoa den susmoa.

Proposamenaren garapenak, gaiak duen interesak edo bizipenaren ahalmenak, batzuetan, **aldaketarekin konpromisoa hartzeko** eta banaka edo taldean hobetzeko aukera emango digute; neure buruarekin eta beste guztiekin; eskolaren barnean edo eskolatik irten eta komunitatean sartzean. Ez dauka zertan izan izugarria beti. Parte-hartze eraldatzailea lortu dugu, eta balio handiko inplikazioa eta ikaskuntza.

Adierazitako helburu hori lortzeko, arazoak edo beharrak helburu bihurtzen ikastea geldituko litzaziguke, **planifikatzen**, helburua geure egiten, prozesua bizitzen eta nola gauden eta noraino iritsi garen ebaluatzen ikastea. Planigintzan parte hartzen ariko ginatete horrela. Protagonistak ginatete, eta **erantzunkideak**; eta horrek berak ere motibazioa, inplikazioa eta konpromisoa elikatzen ditu.

**Hezitzaile naizen aldetik, zer izan daiteke niretzat neketsuena, kontuan hartuta interesa dudala eta prest nagoela, baina irakasteko beste estilo batean eta zuzendaritzari gehiago lotzen zaion eskola-kultura batean errotuta nagoela?**

➤ **Bada, egia esateko, egiten uztea, boterea banatzea, negoziatzeko, interes kontra-jarriak ezagutzeko, beste behar batzuei erantzuteko eta animatzeko prest egotea, positiboa izatea. Ulertu dut, eta parte hartzen ikasi egin daitekeela ikusi dut, eta soilik parte hartuz ikasten dela parte hartzen.**

### **Ibilbide didaktikoaren inguru-ko gogoeta metodologikoak**

Parte-hartzean eta elkartasunean oinarritutako proiektu bat denez, **zehaztutako helburuen eta erabilitako prozeduren artean koherentzia** izan dadin arduratuko gara;ildo horretan, lan egiteko modua, gauzak egiteko dugun era edota parte-hartzeari eskaintzen dizkiogun espazioak eta denborak xede izango dira beren baitan prozesu didaktikoan, eta, are gehiago, proposatzen dugun lan honetan. Ikasleak, irakasleak, familiak eta beste eragileak protagonista dira, maila berean, baina zeregin eta funtzio desberdinak dituzte, ondo definituta dauden eta ezagunak diren zereginak.

Zeregin zaila da, baina unitate didaktiko hau beste aukera bat izan daiteke eskolak duen **komunitate-zentzu eraldatzailea** finkatzeko. Berriro diogu: eskolaren eta gertuko eragileen artean babes-sare bat sortzea komeni da, zentzu globalago bat lortzeko; ikastetxea ingurunera zabaltzeak ikaskuntzari ekarriko dizkion onurak sustatuko ditu horrek, eta, aldi berean, ingurunea ere aberastu egingo da eskolaren ekarpenekin, kulturaren sorgune den neurrian eta bizi-kalitatea eta inguru horretako bizilagunen prestakuntza hobetzeko proiektuen sarean halako oinarritzko topagune bat den neurrian.

Hezkuntza-elkarte osoak ezagutu behar du proiektua, baina, horretaz gain, oso interesgarria da ikastetxean gauzatzen ari diren **beste ekimenekin koordinatuta** aritzea, baliabideak optimizatzeke, sinergiak batzeko eta, zehatz aztertuz gero, antzeko helburuak

dituzten proiektuen inflazioa mugatzeko.

Banakako eta taldeko **ikerketak**, proiektu batean eta irakasteko eta ikasteko prozesuan **lan egiteak** nahiz **inplikazio** parte-hartzaileak helburu argi bat dute: ikasleak izatea prozesu horren protagonista.

Garatzen den fase bakoitzean **produktuak lantzea** da beste gakoetako bat. Ekoizpen horiek biltzeak, amaierako forma emateak, bistaratzeak eta hezkuntza-elkarteko edo inguruko eragileei komunikatzeak orientatuko gaitu gure jardunean, eta ikasleen gaitasunak garatzen lagunduko digu horrek guztiak.

Une oroikasleak **prozesuan ondo orientatuta** edukitzea eta proiektuaren une eta faseetan ondo kokatuta egotea komeni da. Saio bakoitzaren hasieran helburuak eta adierazleak aurkezteak eta jarduera eta modulu bakoitzaren amaieran proposatu eta lortu dena jasotzeak proiektu parte-hartzaile bateko etapak egiten ari garela ulertzen lagun diezaiekete ikasleei, eta, horrela, ibilbidea bera azken emaitza bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa dela jabetuko dira. Etengabe lanean zertarako ari garen azpimarratu behar dugu, zergatik ari garen egiten jarduera bat, eta prozesu globalari nola lotzen zaion hori. Horri begira, hauek dira gure iradokizunak:

- Prozesuan zehar pertsona bakoitzak egiten dituen jardueren taula bat osatzea, eta koadro batean, egindako zereginak, datak, fase bakoitzean egile izan direnak eta balioespen orokorra

biltzea.

- Banakako karpeta batean fitxak eta ekoizpenak biltzea.

- Egindako lanaren berri ematea ikasgelatik kanpo.

Daukagun denboraren arabera, eta beti ikasleen aniztasuna kontuan hartuta, **hiru moduluko ibilbide** bat eskaintzen da (jakin - nahi - ahal), etapa bakoitzean oinarritzko bost ideia edo mugarri bilduta. Hiru atal horietako bakoitzean, hamar jarduera daude, eta, binaka, deskribatutako oinarritzko ideia horietako bakoitzarekin lotzen dira (5X2); gainera, bi zailtasun-maila zabaletan daude ordenatuta. Zalantzarik gabe, ezinbestekoa izango da, proiektuari ekiten dion taldearen errealitatea kontuan hartuta, jarduera horien aukeraketa bat egitea eta egokitzea. Batez ere, parte hartzen ari diren ikasleen eta irakasleen interesaren eta esku-hartze mailaren arabera, kasuren batean gerta daiteke zailagotzat jo dugun jarduera bat uste baino errazagoa iruditzea. Horrek ez du modulua garatzeko oztopo izan behar, eta, guri egoki irudituz gero edo baliabiderik edo denborarik ez badugu, modulu bateko etaparen bat ken daiteke. Egiten dugun aukera egiten dugula, garrantzitsuena prozesu-izatera horri eustea izango da.

Modulu bakoitzak aipatzen ari garen jarduera horiek ditu, **entrenamendu** izenaren barnean bildu eta zirkulu baten bidez sinbolizatu ditugunak, hain zuzen. Baina oinarri-oinarritzko da modulu bakoitzean, **entrenamenduari (E)** dagokion ibilbidearekin batera, beste bi ibilbide ere egitea: **lan emozionala**



(ZE), eta **proiektu parte-hartzaile (PP)** bat diseinatzea eta abian jartzea.

Komunikazioarekin, dinamismoarekin, parte-hartzearekin eta emozioen adierazpenarekin eta lanketarekin lotutako jarduera guztiak ez ezabatzea iradokitzen dizuegu, giza eskubideetarako hezkuntzako lan-prozesua, batez ere jarrerekin lotuta dagoena, eduki kontzeptualez gainkargatzea adieraziko bailuke horrek. Balioetan hezi nahi badugu, ezaguera eta balio horiek jokatibideetan eta jarrerazko joeretan isla daitezen nahi badugu, **jarrera horiek lantzeko entrenamendua** egin behar dugu, horiek gelan garatzeko estrategietara joz, nahiz eta, kasuren batean, egunerokotik aldentzen direlako konplikatuak iruditu edo gure taldearen kontrola galtzen dugula iruditu.

Motibazioan oinarritutako ikaskuntza baterako giro soziala sortzeko **taldea osatzeak duen garrantzia** ari gara, taldearen kohesioaz, taldearen identitateaz. Horretarako, lankidetzan oinarritutako dinamikak eta estrategiak hartuko ditugu ardatz, besteak beste, jolasak, elkarrizketa, talde txikietan oinarritutako lana, kasuen azterketa, etab.

Proposatutako jardueren aukerak

taldea hainbat esparrutan murgilarazi nahi du: autokontrolaren dinamikan, elkarrenganako errespetuan, besteen sentimendu eta beharren bizipen partekatuan, pertsona bakoitzaren eta guztien balioaren ezagutzan, eta proiektuei ekiteko eta jarraitzeko inplikazioan, indarrean eta gogoan. **Jarrerren esparruko lan** horixe proposatzen da, eta hautatutako aukera metodologikoarekin lotuta dago hori zuzenean; lankidetzako uneak eta taldean alderatzeko eta eztabaidatzeko uneak lehenetsiko lituzke metodologia horrek. Finean, metodologia guztiek ez dute berdin laguntzen proposatutako helburuak garatzen eta lortzen.

Pertsona bakoitzak taldeari bere ekarpena egin diezaion, materialak bere koadernoan ordena ditzan eta pertsona bakoitzaren ikaskuntza autonomia izatea errealagoa izan dadin, interesgarria litzateke jardueretan tarte bat uztea, **gogoeta pertsonalerako** eta bakoitzak bere ondorioak ateratzeko eta biltzeko. Bide horretatik, bakoitzak bere materiala izango du, bai autoebaluatzeko eta bai proiektuaren jarraipena eta garapenaren ebaluazioa egiteko; oinarritzko alderdia da hori ahalduntze-pro-

zesu batean, talde-lanean gerta baitaiteke norbaitek bere erantzukizunak besteen bizkar uztea.

Pixkana adin horietako ikasleengan markatuta ageri diren sexu-estereotipoak hausteko, lantaldeko **rolen eta funtzioen banaketari** erreparatuko diogu, eta jarduera bakoitzean erantzukizunak txandaka daitezen ahaleginduko gara; gainera, norberaren taldeak eta gainerakoek ateratako ondorioak ezagut eta idatziz jaso ditzaten saiatu behar dugu.

**Ebaluazioa prozesu horren zati da**, eta uste dugu autoebaluaziora eta ebaluazio partekatura bideratu behar dela; horretarako, proposatzen diren ebaluazio-irizpideetara eta lorpen-adierazleetara egokitutako tresnak erabiliko dira.

Ondoren adierazten dugun ibilbidea, jardueri dagokienez, maximoetan oinarritutako proposamen bat da, eta, beraz, beharrezkoa izango da **ego-kitzea**, moztea edo hobetzea, ikasleen, irakasleen edo sortzen den dinamika-arabera eta ikasgelatik haragoko sostenguaren arabera.



# esperientziak

## Etxean birziklatu eta ikastetxean bildu

Irrien Lagunak Klubaren eta Ekogras etxearen artean prestatutako ekimena

**Ekimen honen bidez, ikastetxeak olioa birziklatzeko gune bihurtzea, haurrak eta familiak birziklatu beharraz jabetzea eta jasotako olioaren truke lortzen den etekinarekin ikastetxeek aukeratutako gizarte-proiektu bat babestea lortu nahi dute.**

### Zertan datza ekimena?

- Ikastetxe bakoitzean, etxean erabilitako olio biltzeko sistema bat abian jarriko da. Sistema asko daude aukeran. Ikastetxe bakoitzak berari ongien datorkion sistema aukeratu du. Eta haurrek etxean erabilitako olio plastikoak botiletan eramango dute eskolara.

- Ekimen honetan parte hartzera animatzen diren ikastetxeetan, kontzientziazio-kanpaina bat garatuko du Ekogras-ek. Kanpaina hori antolatzen, berriz, hainbat ekintza proposatu ditu Irrien Lagunak Klubak: Olibatxoren eta Irrien Lagunak Klubeko pertsonaien bisitak; "Olibatxok", Pirritzek, Porrotzek eta Marimototsek olio nola birziklatzen den azalduz grabatutako DVDa banatzea; material didaktikoak banatzea, eta abar.

- Jasotako olioaren truke lortuko diren etekinarekin, ikastetxeek eraba-



Olio birziklatzeko kontzientziatze ahaleginak egin dira hainbat ekitaldi publikotan.

kitako gizarte-proiektu bat babestuko dute:

- Irrien Lagunak Elkartasun Taldeko elkarteek proposatutako proiektu bat izan daiteke: Etiopia Utopia elkarteak Wucron ezarri nahi duen hortz-klinika; Banaiz bagera elkarteak etorkinak lan-merkatuan euskaratik eta euskaraz txertatzen laguntzeko bideratutako proiektua; minbizia duten haurrentzako proiektua...

- Edota, ikastetxean bertan, beste behar bati aurre egiteko bidera daiteke: behar dituzten baliabideak erosteko, bertan erabakitako kanpainaren bat abian jartzeko...

"Olio-gune" proiektua 2012-2013 ikasturtean abiarazi nahi dutenez, gaia lehenbailehen aztertzea komeni da, eta, parte hartzeko erabakia hartuz gero, proiektuaren zehaztapenak lehenbailehen lantzen haseta. •



"Olibatxo" deitu dute olioaren birziklapenerako sortu duten pertsonaia.



Kalean ikus litekeen olio jasotzeko edukiontzitako bat.







# esperientziak

## Nairobitarra: mundua ezagutzeko bidea

**Itsasondoko (Gipuzkoa) haurrek mundua ezagutzeko aukera izan dute, Nairobitarraren bidez. Nairobitarra proiektua 1980an sortu zuten Tolosaldeko (Gipuzkoa) gazte batzuek. Ordutik, hiru autobus erabili dituzte munduan barrena ibiltzeko. Haien abenturen arrimuan, itsasondoar txikiek ere pixka bat gehiago ezagutu dute mundua.**

Itsasondoko Herri Eskolan, ikasli-buruak alde batera utzita, proiektuen bidez lan egiten hasi ziren joan den ikasturtean. Beste Eskola Txikiekin koordinatuta, haien metodologia bera erabiltzen dute: asmoa, beraz, proiektuen bidez ikastea da.

Hiru proiektu landu zituzten aurreko ikasturtean. Azkena, udaberriko oporren ondoren hasi zuten, Haur Hezkuntzako haur guztiak batuta, hain zuten.

“Ikasturtea amaitzeko, denek elkarrekin egiteko proiektu bat proposatu nahi genuen”, azaldu dute Edurne Bidekietak Eskisabel, Jone Iturrioz Beraza eta M<sup>a</sup> Rosario Etxeberria Arruabarrena Itsasondoko eskolako irakasleek. “Munduko haurrak, askotariko kulturak, aniztasuna, eta abar genituen buruan, eta hortik jo genuen”, gaineratu dute.



Autobusaren hormairudi handia margotu zuten.

Hori guztia lantzeko, Nairobitarra bitarteko gisa hartzea bururatu zitzaizen, eta hortik abiatu ziren mundua eta lekuak aztertzerakoan.

Lehenik, irakasleek *Nairobitarra* autobusa ekarri zuten gelara. Han, zortzi lurraldetako ipuinak daude: Sahara-koak, Laponiakoak, Patagoniakoak, Andeetakoak, Himalaiakoak, Euskal Herrikoak, Alaskakoak eta Australia-koak.

Haurren eskura ipini zituzten ipuinak. Akordeoi gisa zabaltzen dira ipuinok, eta, horiek ikusi eta espermentatu ondoren, haurrek beraiek sortu zituzten ipuinak, kolore, euskarri eta neurri beretan.

Ondoren, ipuinak kontatu zizkieten. Ipuin txiki horietako bakoitzean, herrialde horretako pertsonaia batek nola bizi diren kontatzen die haurrei, zer ohitura dituzten, nola janzten diren, zer-nolako etxeetan bizi diren, zer musika-tresna dituzten, non dauden kokatuta, zer geografia eta klima dituz-

ten, eta abar. Azken batean, lurralde horretako ezaugarri nagusiak agertzen dituzte.

Ipuinak neska-mutilen interesen arabera sakondu dituztela kontatu diote *bik hasiri* irakasleek, nahiz eta batzuetan besteetan baino nabarmenago ikusi den hori. “Noraino iritsiko ginen jakin gabe jarri ginen abian”, aitortu diote Bidekietak, Iturriozek eta Etxeberriak, eta metodologia horrekin ikasleak motibatuago ikusi dituztela diote. Etxetik egindako ekarpenak ere oso ugariak izan dira.

Gero, bidaiak egiteko erabili dituzten autobusetara eraman zituzten haurrak *Nairobitarrako* ipuinek. Izan ere, *Nairobitarraren* abentura hiru autobus-ek egindako bideen bidez gauzatu zen.

Interneten aurkitu dituzte autobus-ibilerak: lehenengo autobusa pres-tatu, eta 19 gazte Afrikara joan ziren, eta hiru hilabetez ibili ziren, Nairobira iritsi arte. Han, Kenyako gobernuari saldu



zioten, etxera itzultzeko hegazkin-txartelak erosi ahal izateko. Bigarren autobusa, berriz, Europan eta Ameriketara ibili zen, eta hantxe utzi zuten. Hirugarrenak, azkenik, txatarategi batean bukatu zuen, munduan barrena ibili ondoren. Basamortuak, oihanak, errekek eta urruneko lurraldeak zeharkatu zituzten, eta abentura horiek guztiak Interneten bidez ere ezagutu dituzte haurrek.

Azkenean, munduko haurrak eta beste bizimodu batzuk ezagutzeko helburua zuen proiektua, hori baino zerbait gehiago bihurtu da, eta *Nairobiarraren* historia ezagutu dute: *Nairobiarra* bera zer den, eta zer egin zuten. Azkenean, tolosar horien historia izan da beste herrialde batzuk ezagutzeko bidea.

### Atentzioa eman zieten herrialdeak

Guztira, HHko 24 haurrek hartu zuten parte proiektuan. Hiru urteko haurrentzat, batez ere, Euskal Herria eta Sahara izan dira herrialde erakargarrienak. Sahara oso berezia iruditu zitzaizien, basamortuak erakarrita edo: ikasle baten ama marokoarra da, eta, adibidez, janzkeran antzekotasunak bilatu zituzten.

Ikasle zaharrenak, 4 eta 5 urtekoak, Andeek erakarri dituzte. Oro har, ordea, joko handiena Saharak eman du, kontrasteengatik, akaso.

Ekintza batzuk taldetan egin dituzte, eta guztiek elkarrekin beste batzuk. "Esaterako, guk nagusiek in puintxoak egin ditugu; norberak berea egin du, eta, buruz ikasi ondoren, beste ikasleei kontatu diete", azaldu du Iturriozek. "Nik munduko mapa zuen autobus handi bat egin nuen 3 urtekoekin, eta, gero, pasabideko horman zintzilikatu genuen. Afrika iparraldean, Saharan, kokatu ginen, eta Euskal Herrian, berriz, gero. Laster hasi ziren beren kasa munduko beste leku batzuetako argaz-



Autobusaren aurrean taldeko argazkian. Eta, haurrak autobus barrua arakatzen.

kiak ekartzen, inork eskatu gabe, etxeko norbait han dutelako edo... Mundua deskubritu dute", adierazi du Bidekietak.

Mundu-globoa eraman zuten 4-5 urteko gelara, eta ikasle batek bere kabuz beste bat ekarri zuen. Munduko mapa handi bat ipini zuten horman, eta halaxe hasi ziren munduari, luze-zabalean, neurria hartzen.

Autobusen kontu hura deskubritu eta lantzen hasi zirenean, ikasleei eskatu zieten etxean aurkitutako informazioa ekartzeko. Argazki bitxiak agertzen hasi ziren, irakasleek halakorik espero ez bazuten ere: haur batek bere amonaren lagun batenak ekarri zituen, *Nairobiarraren* bidaia batean parte hartu zuelako; beste batek, amak utzitakoak... Eta, horrela, uste gabe, Itsasondoko neska-mutilek hurbil sumatu zuten *Nairobiarra*, eta gai izan ziren etxeetan gai horren inguruko elkarrizketak sortzeko. Nahi gabe ia, etxekoekin elkarlanean aritu ziren, etxeetatik ekarritako informazio, objektu eta abarren bidez.

Izan ere, etxekoek asko ikasi dute *Nairobiarrak* eta munduaz, eskolako txikienak gidari zituztela. Beste proiektuak batzuk egiten dituztenean, beharbada, gauza asko jakiten dituzte aurretik horien inguruan, baina *Nairobiarra* aurkikuntza bat izan da denentzat. Deigarria egin zaie errekek pasatzeko edo bizitzeko autobusa prestatu behar izan zutela entzutea. Gainera, gauza berriak ikasi dituzte beste herrialdeetako geografiaz, kulturaz eta abarrez.



Munduko mapa, eta, globoetan lurralde ezberdinak aurkitu genituen.



Autobusa planoaren gainean tenperaz margotu zuten.



Haurrek etxeetan galdetuz informazioa eta argazkiak ekarri zituzten.



Josu Iztueta azalpenak eta argibideak ematen.





## Nairobotarrara bisitan

Laugarren *Nairobotarra* Tolosan bizi da, suhiltzaile-parkearen aurrez aurre, abentura hasteko zain. Munduarekin amets egiten erakutsi zieten autobusbaien ondorengoa ezagutzera joan ziren haurrak jaiegun eta igandeetan beren etxekoekin. Ongi ezagutu zuten kanpotik. Irakasleek jakin zuten bazela laugarren *Nairobotarra* barrutik ezagutzeko aukera, eta harremanetan jarri ziren Josu Iztuetarekin, zenbait astez eskolan ezagutu zituzten abentura haien guztien arimetako batekin. Hala, hitzordua egin zuten autobusa barrutik ezagutzeko eta Iztuetarekin hitz-aspertua egiteko.

“Irteera mundiala izan zen”, gogoratu du Iturriozek, “ezustekoa izan zen denontzat”. Iztuetak aho zabalik eta harrotasunez entzun zituen *Nairobotarrako* autobusei buruz hurrei egin zizkien galderen erantzunak: “Autobusen matrikulak eta guzti zekizkiten”, gogoratu du harrotasunez, eskuarekin haurren altuera adierazten duen bitartean.

Haurrek, berriz, bertatik bertara ikusi ahal izan zuten abentura haietako

protagonistetako bat, eta zuzenean entzun ahal izan zituzten haren hitzak. *Nairobotarraren* blogean topatu zituzten abentura ia ezinezko haietan sortu zitzaizkien galderen erantzunak eman zizkien Iztuetak; bidean autobusa sartzen ez zen zubibatekin topo egin zutenean, nola pasatu ziren haren azpitik, nola egokitu zuten autobusa han bizitzeko, non egiten zuten lo, eta abar. Haurren begietara hain magikoak ziruditen kontu haiek guztiak, zehaztasun guztiak, jakin ahal izan zituzten. Oso egun berezia izan zen haurrentzat, du-daririk gabe.

Ez zen han amaitu, ordea, abenturazaleen arteko harremana. Handik egun batzuetara, Iztueta bisitan joan zitzaizen ezustean eskolara. Eskolan bertan kontatu zioten zer egin zuten: han zeuden lanak erakutsi zizkioten, eta jada etxera eraman zituztenen argazkiak ikusi ahal izan zituen.

Proiektuaren nondik norakoan oso azterketa baikorra egin dute Bidekietak, Etxeberriak eta Iturriozek. *Nairobotarra* gaia hartu zuten, baina, hortik abiatuta, geografia landu dute aldi be-

rean, lurralde askotako ezaugarriak ezagutu dituzte, eta, gainera, baliagarria izan da proiektua esparri horretako hiztegia ezagutzeko, haurrek duten adina eta gaitasunak kontuan izanda eta haietan oinarrituta, noski. Haurrak aipatutako xehetasun guztiekin geratu dira, eta baliagarria izan da balioak lantzeko ere: guk ditugun gauzak ez izan arren, duten apurrarekin zeinen zorionsu diren ikusi dute, eta abar.

Asko ikasteaz gain, oso ongi pasatu dute. *Nairobotarra*, beraz, baliagarri gertatu zaie gauza piloa egiteko. Era berean, adin askotako haurrak nahastu izanak oso aukera aberatsak eskaini dizkie. Haurrak proiektuaren parte sentitu dira, eta etxetik gauzak ekartzeko ekimena erakutsi dute.

Egindako lanak izan du oihartzuna eskolako hormetatik harago, Itsasondoko etxe guztietara iristen den herriko aldizkariak ikasleek egindako lana jaso baitzuen. Orain, herritar guztiek pixka bat gehiago dakite *Nairobotarrak* eta, bide batez, munduaz, herriko eskolako txikienei esker. ●

# Euskal Herrian pentsatua eta sortua, etxekoentzako heziketa aldizkaria



## Egin zaitez harpidedun!

Argitaratu dugu 2. Hazi Hezi aldizkaria.

Gustuko baduzu, urtean argitaratuko ditugun lau zenbakiak 20 euroren truke izango dituzu etxean 943 371 408

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

\* hik hasi, Berria eta Irria-ren harpidedunek beherapena izango dute.



# galdeidazue

## Ikastetxeen autonomiak ba al du eraginik eskola-arrakastan



Aditu askoren iritziz, irakatsi eta ikasteko prozesu nagusiak biltzen dituen oinarritzko gunea da ikastetxea, herritarron hezkuntza-eskubideak gauzatzeko eremua, hain zuzen. Izan ere, hezkuntza-prozesu asko eskolan gertatzen dira. Hortaz, hezkuntza-aukera eraldatzaileak zehazteko eta kalitate-maila gorena lortzeko testuingurua da eskola. Eskola onak izatea, eskubidea izateaz gain, helburua ere bada, herritarron, administrazioaren eta hezkuntza-sistemen ukaezinezko helburua.

Gauza jakina da ikastetxe bakoitzean garatu beharreko hezkuntza-ildoak eta, neurri batean, eskola-emaitzen arloan ikastetxeen artean egon daitezkeen aldeak hainbat aldagairen mende egon daitezkeela: ikasleen askotariko kultura-ondareak, egoera sozialak eta linguistikoak eta horrelakoek zeresan handia dute horretan. Beraz, hezkuntza-ekimena testuinguru jakin batean planifikatu eta bideratu behar dugu.



**Imanol IGEREGI**  
EHIK-EKO ZUZENDARIA

Europako Hezkuntza Batzordeak txosten bat argitaratu zuen 2007an. Txosten horren arabera, Espainiako estatuko eskolek autonomia gutxi edo oso gutxi dute. Halaber, eskolaren autonomiaz ikerketarik edo esperimintaziorik ez dela egin dio.

Euskal Herrian ezagutzen dugun

eskolak ez du autonomia nahikorik. Garai bateko eredu zentralista ez da funtsean aldatu. Erabakigune geografikoa aldatu da; ez, aldiz, eskolaren funtzionamendua ulertzeko modua. Ikastetxe batean eragiten duten erabaki asko Gasteizen (Lakuan), Iruñean edo Parisen hartzen dira, ez eskolan bertan. Bestalde, esan behar da eskola-komunitateko kide askoren iritzia bat datoirela eredu neozentralista horrekin: bakoitzak eguneroko erantzukizuna eta ardurak bereganatu beharrean, askotan ez da txarra izaten Lakuako eta Iruñeko "errudunak" egurtu ahal izatea.

Aitzitik, txosten eta ikerketa berriek haxe azpimarratu dute, behin eta berri: **eskola-sistema arrakastatsuetan, eskolen autonomia eta "accountability" sistemak daude hobekuntzaren eta arrakastaren muinean.** Artikulu honetan, ildo biak defendatuko ditut, autonomia eta erantzukizuna (ebaluazioa), nire uste apalean, biak batera ulertu behar baitira.

## Administrazioek funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietako hezitzaileen eta zerbitzuetako langileen oinarriko diru-hornigaiak eta soldatak bermatu beharko lirateke, eta baita finantzazioan berdintasunez jokatzeari ere.



### Eskolen autonomia: zergatik eta zertarako

Eskola-autonomiak honako onura hauek ekar diezazkioke ikasleen irakasteko eta ikasteko prozesuari:

**1. Desberdintasuna modu berezian kudeatzeko aukera:** ikastetxe guztiek beren ezaugarriak dituzte hizkuntzaren, kulturaren, hezkuntzaren eta gizartearen arloetan. Horren ondorioz, askotariko erantzunak behar dituzte, arrakasta (kalitatea) eta gizarte-kohesioa (ekitatea) lortzeko.

**2. Aukera-berdintasunerako eta ekitateko lanabes ahaltsua:** askotariko abiapuntuak aitortuta, izaera berdintzailea duten ekintza zehatzak eta proposamenak bidera ditzake autonomiak.

**3. Eskolako kudeaketan ardurez eta erantzukizunez** parte hartzeko aukera: eskola-komunitatearen proiektuari garrantzia ematen dio.

**4. Partaidetza ikastetxeko erabakietan:** ikasle, irakasle eta gurasoen partaidetza zentzua ematen dio. Aipatutako erabakiek, gainera, hezkuntza hobetzen lagunduko dute. Hala ere, partaidetza soilaren kulturatik erabakimen arduraturako urratsa egin behar dugu. Nire aburuz, ezinbestekoa da partai-

detza, baina ez da nahikoa; nahitaezkoa da erabakimenari lotutako partaidetza.

**5. Irakasleen gaitasun profesionalaren aitortza:** haien esku utziko ditu planifikazioa, azterketak, ebaluazioa eta hezkuntza-ekintzak hobetzeko tresnak.

**6. Administrazioaren eta eskolaren arteko konfiantzaren adierazle:** eskolako profesionalen, eskola-komunitateen eta ikastetxeen konpromisoan eta erantzukizunean oinarrituko den eredu hartzen du abiapuntutzat.

Horiek guztiak alde aurretik adierazita, beste zerbait gehitu nahi dut. Eskolak autonomia izan behar du, dudarik ez. Baina, eskola on batean, lehentasunez, kalitatea eta hobekuntza eraman behar ditugu ikasgelara. Izan ere, gela barruan bideratzen diren ekintzek eskola orokorrean hartuta baino eragin handiagoa daukate ikaslearen emaitzetan (Stoll, L.; Fink, D., 1999//Elmore, R., 2010). Eta, horretarako, eskola autonomoagoak behar ditugu.

### Bost proposamen eskolaren autonomiaren gainean

Aurreko iritziak eta esparrua kontuan hartuta, hainbat proposamen egingo ditut autonomia izateko, hots, eskola autonomoagoaren bidea sustatzeko. Norbaitzuei gehiegikeria irudituko zaie. Dena den, beharrezkotzat jotzen dut hainbat mamu eta pentsamolde baztertzeari, eztabaida pizteko. Horra hor proposamenak:

**1. Akordioak eskola bakoitzarekin:** ikastetxeen autonomiaren eraikuntzak, haien izaera instituzionalak, alde aurretik hainbat baldintza betetzea eskatzen du, besteak beste:

- Ikastetxe bakoitzaren eskumenen zehaztapena, haien proiektuaren eta titulartasunaren bidez.

- Administrazioaren eta ikastetxeen arteko esparru partekatua erabakitzeko prozesuetan.

- Ikastetxeen gardentasuna eta eragin kortasuna bermatuko dituzten kan-

po-ebaluazioa eta kontrol soziala.

Bistan da ikastetxe bakoitza errealtate bizia eta besteengandik bereizita dela, testuinguruaren arabera beharizan zehatzak dituen. Beraz, ezin dira kudeatu halako sasi-berdintasun baten bidez erabat edota modu esanguratsuan desberdinak diren egoerak.

**Administrazioaren eta ikastetxe bakoitzaren arteko AKORDIOaren bidean, aurrera** egin dezakegu: herri-baliabideez hornitzen diren hainbat titulartasunetako ikastetxe guztiei, publikoei, pribatuei edo herri-onurakoei, zabal dakiekeen bidean aurrera.

Akordio horien bidez, berariazko proiektu horiek egitea eta gauzatzea bultzatuko litzateke. Era berean, haien kalitatea eta ekitatea indartzea bultzatuko litzateke, betiere, ikastetxe bakoitzaren eta sistemaren lehentasunak kontuan hartuta, eta administrazioaren eta ikastetxeen arteko erantzukizun partekatua bultzatuta.

**2. Ikastetxeen autonomian oinarritutako sistema:** hezkuntza-sistemak ikastetxeen autonomian oinarritutako sistema izan behar du, gizarte-helburu orokorrak abiapuntutzat hartuta eta ikastetxeen titulartasunari erreparatu gabe. Aldarrikatutako autonomia horren arabera, ikastetxeek beren buruaren kudeaketa gauzatu behar lukete demokratikoki, curriculum-arlokoa eta pedagogikoa, antolaketa-arlokoa (zuzendaritzaren izendapena barne), langileen arlokoa, administratiboa eta ekonomikoa; hau da, izaera instituzionala ahalbidetzen duten oinarriko osagai guztiena. Maila horretan, eskola-komunitatearen sektore guztien partaidetzak isla izan beharko luke titulartasunean: aukera hori eskola pribatuetan gauza liteke; ez, ordea, administraziopeko ikastetxeetan. Horretarako, legeriari aldaketa esanguratsuak egin beharko litzaizkioke. Horrek guztiak urrats kualitatibo bat eskatuko luke: lehentxeago esan bezala, partaidetzaren kulturatik erabakimenaren kulturara jauzi egitea, hain zuzen.

Titulartasunaren gaian sakonduz,

gaur egun herri-titulartasuna duten ikastetxeek eskatuko balute, nolabaiteko nortasun juridikoa izateko bidea zabal liteke. Aukera horrek ikastetxearen ezagutzan eta hurbiltasunean oinarritutako kudeaketa parte-hartzaile eta arduratsua bultzatuko luke: *“Aldaketa horiek gauzatzeko, udal-fundazioetan edo antzeko erakundeetan pentsa liteke. Beste aukera ausartago bat, aurrekoarekin bateragarria, herri-eremuko izaeragaratzea litzateke, ez estatu-eremukoa; estu araupetuta dagoen arlo batean dibarduten irabazi asmorik gabeko gizarte-elkar-teek osatuko lukete; elkarte horiek, udaletan burutzen ari garen instituzionalizazioaren bidez, ikastetxeen kudeaketaz arduratuko dira. Bitarteko aukera titulartasun mistoa edo nabasikoa litzateke; hots, publikoa edo soziala”.* (LONGO, Francisco *in Propuestas de rediseño del modelo de gobernanza de los centros del servicio público educativo en Cataluña*, 215. or.).

Halako proposamen batean sakonduz, hausnartu beharreko bidea da administraziopeko edo herri-onurako ikastetxeen titulartasunean udalek izan dezaketen partaidetza. Bistan denez, beste eredu bat ere izan daiteke.

**3. Lan ataleko kudeaketarako autonomia:** administraziopeko ikastetxeetan, bi mailatan aurreratu beharko litzateke batez ere:

- Alde batetik, lan saila haien beharrian eta proiektuen arabera diseinatu ahal izatea, beharrezko profilak adierazita eta horien inguruko erabakietan ikastetxearen eta haren gobernu-organoen partaidetza bermatuta.

- Beste alde batetik, gutxieneko epe jakin baterako, 6 urterako, esate baterako, hezitzaile taldeen egonkortasuna bermatzea, inplikaturik dauden laguntzat erakargarria izan dadin irizpide horien aplikazioa, eta, hala balegokie, beste era bateko pizgarriak ezarrita.

Horien guztien osagarri gisa, honako neurri indartzaile hauek aurreikus daitezke:

- Langileen beharrak hala eskatuta, eskola-orduz kanpoko jarduerak burutzeko langile gehiagoren edo enpresen kontratazioa; beharrian bereziak dituzten ikasleen kasuan, edota hizkuntza indartzeko, etxeko lanak egiteko eta berdintasun-aukera bultzatzeko jardueretarako, esate baterako.

- Ordezkapenak betetzeko langileak: irakasleen eskubide-berdintasuna eta kudeaketa-prozesu horren azkartasuna bermatzeko.

**Eskolak autonomia izan behar du, dudarik ez. Baina, eskola on batean, lehenetsunez, kalitatea eta hobekuntza eraman behar ditugu ikasgelara. Izan ere, gela barruan bideratzen diren ekintzek eskola orokorrean hartuta baino eragin gehiago dauzkate ikaslearen emaitzetan. Eta horretarako, eskola autonomoagoak behar ditugu.**



Bestalde, administrazioek funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietako hezitzaileen eta zerbitzueta-ko langileen oinarritzko diru-hornigaiak eta soldatak bermatu beharko lirateke, eta baita finantzazioan berdintasunez jokatzeko ere.





**ikastetxeek beren burua-  
ren kudeaketa gauzatu  
behar lukete  
demokratikoki,  
curriculum-  
arlokoo eta  
pedagogikoo,  
antolaketa-arlokoo  
(zuzendaritzaren izenda-  
pena barne), langileen  
arlokoo, administratiboo  
eta ekonomikoo; hau da,  
izaera instituzionala ahal-  
bidetzen duten oinarrizko  
osagai guztiena.**

**4. Ikastetxeetako zuzendaritzen zere-  
gina:** ondoren aipatuko ditudan propo-  
samenek aldaketa sakonak eskatzen  
dituzte eskola-zuzendaritzen zeregi-  
netan, eta, agian, baita gaur egungo le-  
gerian ere. Hauxe dio Francisco Lon-  
gok gai horri buruz, lehen aipatutako  
txosteneko 218. orrialdean: *“Herri-eki-  
meneko ikastetxeetako zuzendari-  
ek kudeaketa-arloan erantzukizun go-  
rena izan behar lukete, berariazko  
gobernu-organoaren ikuskaritzape-  
an, betiere. Horrek kudeaketa-arloko  
ardura eta eskumenak haren eskue-  
tan jartzea eskatzen du; gaur egun  
horrelako proposamena arras kon-  
trakulturala dela jakin behar dugu.  
Eginkizuna zuzendarien eskuetan  
jartzeak hauxe adierazten du:*

*a. Ikastetxeeko hezkuntza-proiek-  
tuaren zuzendaritza exekutiboa.*

*b. Kudeaketa-kontratuaren gau-  
zatzeaz arduratzea, bereziki, aurre-  
kontuen gauzatzeaz.*

*c. Ikastetxeeko zerbitzuak antola-  
tzea eta zuzendaritza-taldea osa-  
tzea, taldekide bakoitzari dagozkion  
ardurak esleituz.*

*d. Ikastetxeeko giza baliabideak  
zuzentzeko zeregina hezitzaileenga-*

*na eta zerbitzu-erakunde langileengana  
zabaldu behar litzateke, berariazko  
eskumen guztien bilakaera barnean  
hartuta: esate baterako, kontrata-  
zioa, lanaren antolaketa, ebalua-  
zioa, mailaz igotzea, eta abar.*

*e. Ezarritakoaren arabera, Hez-  
kuntza Sailari eta ikastetxeeko gober-  
nu-organoari ikastetxearen kudea-  
ketari buruzko kontuak ematea”.*

Gaur egungo immobilismo-egoera  
kontuan izanik, aldaketa izugarri ho-  
riek pixkanaka-pixkanaka ezarri be-  
harko direla aurreikusten dugu.

**5. Ikastetxeen ebaluazioa eta kontrol  
soziala:** autonomiarekin batera, horixe  
da txanponaren beste aldea: ezin ditu-  
gu izan autonomia duten ikastetxeak  
edota administrazio-erakundeak akordioz  
ezarritakoak, ebaluaziorik eta kontrol  
sozialik gabe. Halaber, ez dute zentzu-  
rik emaitzen hobekuntzarik ahalbide-  
tzen ez duten ebaluazio-prozesuek.  
Ebaluazioak hainbat norabide ditu:

- Kontrolatzeko helburua adierazi-  
ta, hezkuntzaren esparruko herri-zer-  
bitzu batean guztiz onargarria baita.

- Hezkuntza-sistemen funtziona-  
mendua, ikastetxeetako ikasleen jar-  
duera eta irakaslanaren ezagutza ho-  
betzeko asmoa duena, batez ere.

Horregatik guztiagatik, oinarrizkoa  
da ikastetxeen ebaluazioa errazten du-  
ten politiken eta jardueraren garapena.  
Askotariko aukerak har daitezke kon-  
tuan:

**5.1. Autoebaluazioa eta barne-ebaluazioa:**  
eredu ezagunak ezarrita eta ikastetxe  
bakoitzaren errealitateari begira, beha-  
rrezko egokitzapenak eginez. Ahale-  
gin horretan, baliagarria izan daiteke  
kanpoko adituen laguntza.

**5.2. Kanpoko ebaluazioa, hainbat norabi-  
detan:**

\* Maiztasun jakin batekin, adibidez,  
4 urtean behin, ikastetxeen funtziona-  
mendua ebaluatzea. Horretarako, ikas-  
tete bakoitzeko zuzendaritzarekin  
adostutako adierazleak erabiliko dituz-  
te, ikuskarien lana tarteko, ebaluazioa-  
ren prestakuntza-izaera eta hobetzeko  
helburuak azpimarratuz.

\* Ikasleen ebaluazio diagnostikora-  
ko proben aplikazioa; proba horiek er-  
kidegokoak edo nazioartekoak izango  
dira, eta ikastetxeetan ezagutzen diren  
ohiko ezaugarriak eta prozedurak eza-  
rriko dituzte. Maila horretan, nahiko ari  
gara aurreratzen azken urteotan.

\* Aldian-aldean, irakasleen gaitasu-  
nen eta haien irakaslanaren kanpoko  
ebaluazioa: autoebaluazioa osatzeko  
eta ohiko hezkuntza-jardunari lotuta,  
gelako lanaren behaketa burutzeko  
kanpoko adituen partaidetza aurrei-  
kusten da. Uste dugu ezinbesteko  
urratsa dela talde profesionalekin, ira-  
kasleekin eta haien ordezkariekin al-  
dez aurretik ebaluaziorako irizpideak,  
adierazleak eta ildoak adostea.

\* Kostuen eta herri-baliabideen  
kontrola: lege-parametro batzuen ara-  
bera, urtero ikuskatuko dira kontuak,  
pixkanaka herri-baliabideen bidez sos-  
tengatutako ikastetxe guztietara zabal-  
duz.

\* Hezkuntza-administrazioak ere  
bere zerbitzu guztien ebaluazioa egin  
beharko luke.

**5.3. Borondatezko esperientzia pilotuak  
eta esperimentazioa, ikastetxe bakoitzaren  
“balio erantsia” neurtzeko:** denbora jakin  
batean (etapa, zikloa, derrigorrezko es-  
kolaldia) ikasleen batez besteko aurre-  
rapena neurtzen duen adierazlea izan-  
go da kasu honetan balio erantsia, lagin  
bereko eta antzeko egoera sozioeko-  
nomikoko beste ikastetxeekin aldera-  
tuta. Horrela, ikastetxeen emaitzak al-  
deratu egiten dira, eta ikastetxe bakoit-  
zak ikasleen alde aurretiko ezagutzei  
eman dien bultzada neur daiteke; hala-  
ber, antzeko ezaugarrietako ikastetxe-  
ak neurtzen direnez, egoera horietara-  
ko hezkuntza-estrategia eraginkorrek  
edo eraginkorrenak bereiz daitezke. ●

**Obarra:** Imanol Igeregik 2009an  
EHUk antolatutako Katalunia-Euskadi  
Topaketan parte hartu zuen. Testuingu-  
ru horretan dago kokatua Kataluniako  
aditu eta adibide batzuen aipamena.

# argitalpenak



## Ilargia lapur

Pablo Albo/ Pierre Pratt  
TXALAPARTA

Fantasiaraz eta irudimenaz baliatu da Pablo Albo kontakizun honetan, eta goxotasunez eta umorez landu du haurerentzat eta gurasoentzat zaila gertatzen den erronka: txupetea uztea. Hazteko eta heldutasunera iristeko bidean, pauso bat gehiago da, beste aro bat, eta haurrak ulertuko duen norbait behar du, azken helmugara ailegatuko bada. •



## Hasiera

Paula Carballeira/ Sonja Danowski  
PAMIELA

Behin batean gerra bat izan zen. Gerra amaitu zenean etxerik gabe geratu ginen. –Berdin dio –esan zuen gure amak–, badugu auto bat.

Autoan bizitzera joan ginen. Geroztik, bizitzea bidaiatzea zen...

Liburu ilustratu honek islatzen ditu izuaren aurreko samurtasuna, erabateko prekaritatearen aurreko irudimena, giza dramaren aurreko kemenak. •



## Piraten Olinpiadak Txilabeltzaren Uhartean

Mitxel Murua/ Julen Tokero  
ELKAR/KATXIPORRETA

Aurki izango dira Munduko Piraten Olinpiadak, jakinarazi dio Patakon kapitainak bere tripulazioari.

Txirlabeltzaren Uhartean jokatuko dira beti bezala, eta mundu osoko pirattek hartuko dute parte. Patxijaik, baina, oso bestelako ideiak ditu batzuetan, eta berak Olinpiadetan ez duela parte hartuko esaten du. •



## Hizkuntzaren keinua

Askoren artean  
KONTSEILUA


Idazleei zein ilustratzaileei ariketa txoa proposatu zieten: euskaraz bizitzeko nahia labur agertzeko eta, ondoren, hitzen bidez adierazitako ideia hori ilustrazio banatarara ekartzeko. Zein gauza xumea, baina zein oinarizkoa, ezta? Izan ere, euskaraz bizitzea ez da ikastea bakarrik; euskaraz bizitzea, euskaraz irakurtzea ere bada. •



## Zientziaren aurreiritziak

Unai Mtz. Lizarduikoa  
GAIK

Ez dira gutxi zientziaren izenean zabaldu diren eta guztiok etsi-etsian sinetsi ditugun uste okerrak; adibidez, gure garunaren zati nîmiño bat baino ez dugula erabiltzen edo ostadarrak zazpi kolore dituela. Baina benetako zientzia ez da erlijio bat. Zientziak jarrera kritikoa dakar, eta bere *egiak* ere zalantzan jarri behar ditu. •



## Ezekiel nora ezean

Jasone Osoro  
ELKAR

Ezekielek 15 urte ditu, lagunarte jator bat, neska-lagun moduko bat... Bizitza zoriontsu hori aldatu egingo da, ordea, inoiz ikusi ez duen aita bat-batean agertzean: ezagutu nahi luke, baina baita alde egin izana aurpegiratu ere. Horrez gain, baditu beste hainbat arazo. 13 urtetik gorakoentzat. •

# ... nora joango gara?

## GASTEIZKO BIBAT MUSEOA

### Museo berrian, historiari zaharrena

Gasteizko museorik berriena da, baina, hiriko, eta are gehiago, Araba osoko lekukotasun zaharrenetakoak erakusten ditu. Berriena da Bibat, Arkeologia museoa eta Karten museoa zirena —Arabako Arkeologia Museoa eta Fournier Karta Museoa— batu ondoren ireki baitzituen ateak Bibatek, Gasteizko bihotzean, Aiztogile eta Pintoreen kaleen artean, 2009ko martxoaren 29an. Beraz, eraikin berean, bi bidaia egiteko proposamena egiten du Bibat museoak, batetik, Arabaren —eta beraz, Euskal Herriaren— antzinatera eta, bestetik, Gasteizentzat hain bereizgarria izan den Heraclio Fournierren bildumara, munduko bost bilduma garrantzitsuenen artean dagoen karten sorta ezagutzera. Guztia, azken finean, ondare beraren zati da, Arabaren historiaren zati.

Alde Zaharreko bihotzean, Santa Maria katedrelerako bidean, Bendaña jauregi ederra eraberritu du Patxi Mangado arkitekto nafarrak Bibat museoa egiteko. Eraldaketak eraldaketa, ezau-garri gotiko eta errenazentistak mantendu ditu eraikinak, Gasteizko historiaren parte garrantzitsu dela erakusten baitu. Alde Zaharreko zurrunbiloan atsedean gune bat da museoa. Bertan, ikusleak nahi duen solairutik has dezake Arabako ondarea ezagutzeko bisita: Kartak bezain gauza fin eta artistikotik, edo kristo aurreko laugarren mendeko



xabalinak edo sastakaiak ikusiz, adibidez. Museo bakoitza bere aldetik bisita bailiteke.

Arkeologia museoan, kasurako, 4.200 metro koadroko azalera, denborak atzera egiten du arrapaladan. Brontzezko xaflez inguratua, kanpotik kutxa trinko eta hermetikoa dirudi museoak, eta barrutik iradokitzailea eta magikoa da, eta sartzearekin batera, antzinatera egingo du bidaia haurren —eta helduen— irudimenak, Paleolito garairaino.

Lehen solairuan, arkeologia bera ezagutzuz hasten da bisita, lan metodoak ezagutzeko aukera baitago. Ondoren, menderik mende, Euskal Herriko

ingurune hauetan bizi izan ziren jendarteek eta haien bizimoduak izan duten garapenaren berri ematen da Arabako ondare arkeologikoaren bidez. Lehen solairuan Brontze Aroa bitarteko materialak ikus daitezke. Bigarren solairuan Burdin Aroak lurraldean izan zuen garapena ikus liteke. La Hoyako nahiz kristo aurreko antzeko beste zenbait herrixkatako materialak ikus litezke solairu horretan, Arabako indusketa garrantzitsuetan ateratako lanabesak, etxeko tresna, edota bitxiak, eta baita hilobi bat ere. Azken gunean erromatarren garaia dauka protagonismoa, eta bizitza militarren arrastoak ikus litezke, haiek erabili zuten material





militarra adibidez, edota legionarioek eguneroko elikagaia lortzeko erabiltzen zuten errota eramangarri bat, besteak beste. Horrez gain, antzinateko azken garaiko nekropoli bat ikus liteke —Aldaietako, VI-VII. mendeetako—, eta, bisitaren amaieran, Erdi Aroraino iritsiko da ikuslea.

Antzinatek Erdi Aroraino, ehunka pieza daude ikusgai Bibat museoren bigarren eta hirugarren solairuetan, eta gaur eguneko arkeologia jardueretako tresnak gehiturik, orotara, 1.500 pieza baino gehiago daude ikusgai. Tokian tokiko indusketetan berreskuraturiko benetako materialak ikusteaz gain, Arkeologia museoak horien erabilera ulertzen laguntzeko, eta ondorioz historiaurreko nahiz antzinateko arabarren historia interpretatzeko ikus-entzunezkoen, idatzien eta ilustrazioen bidez historiaren narrazioa osatu du.

### Kartak ere, ondare

Fournierren bilduma da jauregi honetako bigarren museoa, eta berau, esan bezala, munduko karta-sorta garrantzitsuenen artean dago sailkatua. Museoa 250 karta sorta daude ikusgai, karta itxurarik ez duten kartak, irakatsi eta ikasteko erabili izan direnak, eta joko eta iragarpenerako erabil daitezkeen kartak, besteak beste. Alabaina, kartak ez ezik, ekoizpen prozesua eta Gasteizko Heraclio Fournier etxearen historia ere ezagutzeko bidea ematen du, ibilbide historiko, tematiko eta teknikoa baitago ikusgai Bibaten.

Munduko kontinente guztietako kartak ezagutzeko ibilbidea Bendaña jauregiko patioan hasten da. Erdi Aroko karta batzuk daude han ikusgai, Italian eta Alemanian eginiko bi sorta, hain zuzen ere. ●

## BIBAT MUSEOA

Arabako Foru Aldundiaren zuzendaritzapeko museoa da.  
Aitzogile kalea, 54  
01001 Vitoria-Gasteiz  
Telefonoa: 945 203 700  
e-maila: bibat@alava.net  
museoarqueologia@alava.net



## ORDUTEGIA

**Asteartetik ostiralera: Astelehenetan: itxita**

10:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30

**Larunbatetan:**

10:00 - 14:00

**Igande eta jaiegunetan:**

11:00 - 14:00

## BIBAT: Arkeologia, Fournier de Naipes Museoa

HAUR HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA - DBH
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>WELI MAKULI HISTORIALFEEA</b> <i>Sustaiak lehenia</i> Jaten daudena nantzen dut</li> <li>• <b>WELI MAKULI BURDIN ARGA</b> <i>Sustaiak lehenia</i> Berriak bezala jantzen</li> <li>• <b>WELI MAKULI EPORAA</b> <i>Sustaiak lehenia</i> <i>Tenak tenak</i></li> <li>• <b>WELI MAKULI ERDI ARGA</b> <i>Sustaiak lehenia</i> <i>Ehun lehenia</i></li> </ul>	<p><b>HISTORIALFEEA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• HISTORIALFEEKO ERNAMINTA KLITXA</li> <li>• TRUKAMU BARRUAN</li> <li>• HERROKIA BATTAN BIZI GARAI</li> </ul> <p><b>PROTOSTORIOA - BURDIN ARGA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• BURDIN ARKO ETKEAK</li> <li>• IDAZTAREN HASTAPENAK</li> <li>• ARMAK ETA GERRALAPAK</li> </ul> <p><b>EPORAA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• NOLA IDAZTEN ZUTEN EPORAKOAK</li> <li>• ASA, SESTERZIOA, DENARGA</li> <li>• DOMUSAREN BARRUAN</li> <li>• JOLASA EPORAN</li> <li>• JANNDIAK, METZAK ETA KONDARAK</li> </ul> <p><b>ERDI ARGA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• MAKAL OPIRAK ETA LIS LOREAK</li> <li>• SORPTORLUA</li> </ul> <p><b>DBH - BATXILERGOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• HISTORIALFEEAN BARRUNA <i>Sustaiak elkarri eragiten</i> <i>Oribete</i></li> <li>• PROTOSTORIOAN BARRUNA <i>Sustaiak elkarri eragiten</i> <i>Oribete</i></li> <li>• EPORAN BARRUNA <i>Sustaiak elkarri eragiten</i> <i>Oribete</i></li> <li>• ERDI ARGAN BARRUNA <i>Sustaiak elkarri eragiten</i> <i>Oribete</i></li> <li>• ARKEOLOGIA AZERIAN <i>Sustaiak elkarri eragiten</i> <i>Arkeologia museoa</i></li> <li>• URRE, KOPA, PIKA, BIHOTZ... <i>KARTAK EZAGUTZEN</i> <i>Sustaiak elkarri eragiten</i> <i>Karta museoa</i></li> </ul> <p><b>PUBLIKO GUTZIENTZAT</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Baita giletak</li> </ul>

HAUR HEZKUNTZA	FAMILIAK BIBATEAN
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>WELI MAKULI... KARTAK ETA...</b> <i>Sustaiak lehenia</i> <i>Kartak margotuz</i></li> <li>• <b>EGOKITU MUSEOKO PERTSONAK</b> <i>Sustaiak lehenia</i> <i>Ereaga, neur</i></li> <li>• <b>KARTEN ESPLORAZIOALAK</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Sustaiak elkarri eragiten</i> <i>Museo familiar eragiteko</i> Lanbideetan, 12 Oribetarik 14 Oribete Tandakotako Oribete Karta museoa eta Arkeologia museoa Nola</li> </ul> <p><b>Urteleku: Arkeologia museoa</b> <b>Oribete: Arkeologia museoa</b> <b>Oribete: Karta museoa</b> <b>Abuztuan: Karta museoa</b> <b>Martxoan: Arkeologia museoa</b> <b>Irailan: Arkeologia museoa</b> <b>Apirilak: Karta museoa</b> <b>Urtarril: Karta museoa</b> <b>Maiatzan: Arkeologia museoa</b> <b>Azarian: Arkeologia museoa</b> <b>Ekainak: Karta museoa</b> <b>Asteleku: Karta museoa</b></p> <p><b>PUBLIKO GUTZIENTZAT</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Baita giletak</li> </ul>

# atzeko atetik



**Joxean AGIRRE**

IDAZLEA ETA KAZETARIA

Ez dakit nondik inportatuko zuen metodoa edo maistrak berak asmatua zen, baina guk makila batekin arbela joaz ikasi genuen alfabetoa hamar-dozena bat baserri-tako umeak biltzen gintuen auzoko eskolan. Horma osoa alderik alde okupatzen zuen arbelean letra larriz idazten zituen maistrak A, B, C, D etabar luzea ikasturte hasieran eta ume etorri berri bakoitzari makila bana ematen zigun (makila sendoak ziren) eta haiekin arbela egurtzen genuen bitartean ahots goraz bakoitzak bere letra ahoskatzen zuen edo deiadarka esaten. Eszena ederra da benetan, maistra deskuidatu orduko umeok makilarekin ondokoa jotzeko aukera ematen baitzuen edo gutxienez ondokoarekin endredatzeko. Tarteka, lekuz

## Alfabetoari egurra

aldatu eta hurrengo letrarekin jarraitzen genuen.

Beharbada ez da metodorik onena alfabetoa ikasteko, baina gutxienez umearen jarrera aktiboa bultzatzeko balio du eta tentsioa baretzeko ere bai, arbelai markatzeraino ematen baikenion. Gerora irakurle porrokatua izan naiz eta liburuak esku batean dudala irakurtzen ari naizela beste eskua sumatu izan dut erritmo pausatu bat markatzen, umetako perkusioaren oihartzun moduan.

Psikologoek dioten bezala, nortasunaren oinarriko egitura bat eraikita gure hasi ginen eskolan 6 urterekin eta eraikuntza horretan etxekoen babes, maitasuna eta laguntza izan genuen. Beharbada gaurko umeek dituzten kontrasteak falta izan zitzaizkigun.

Gaztelerez ez genuen ikasi. Komunera joateko “señorita, permiso para mear” esaten gurela dakit. Ez zait oso formula dotorea edo jasoa iruditzen, baina halaxe zen. Katonak gaztelerez genituen, baina hori irakurtzen ikasi eta geroko kontuak dira.

Egunean bitan egiten genuen joan-etorria (elurteetan salbu eta orduan bazkariarekin joatea festa bat izaten zen) eta oroitza-penik onenak ilunabarreko itzulerakoak

ditut, bidean jolas eginez entretenitzen baikin. Gogoan dut tarteka pixa nork gorago egiten jolas egiten gurela eta neska batek irabazten zuela askotan. 6 urterekin jakin nuen nik sexu fuertea emakumeena dela.


Ez dut traumarik gogoratzen. Badakit ikasturte bukaeran gelako azkenari neskek eskuz eta txukun asko egindako asto belarriak jarri eta bularrean ‘soy burro’ zuela baserri ibiltzen zutela. Gogoratzen dut berak sufritu egiten zuela eta bere amak gehiago. Nire traumak gero hasi ziren erdara baizik ez zekiten maistrekin hasi nintzean. Nire memorian maistra horiek fisikoki ere traketsak dira, itsusiak esatea motz geratzea baita. Geroztik jende itsusiegiarekiko mesfidantza bat geratu zitzaidan, kostata gaintitu nuen.

Oroitzapen solte horietatik zer ondorio atera daitekeen? Gauza garbirik ez. Irakasleek eskolarekiko sinesmenetsua behar dute. Tximuek dantzan ikasten badute, gizakiek zer ez dute ikasiko!, diote beren baitarako. Nik beti sentitu izan dut didaktikaren eta pedagogiaren ginetik irakaslearen gizatasunak eta orekak duela garrantzia. Eta fisikoki ere ez daitezela izan behintzat ume bat beldurtzeko modukoak.

**“Bata bestearekin alderatuta eta ñabardurak ñabardura, ikusi da guztiak (mundu osoko erlijio eta ikuskerak) antzeko balioetan oinarritzen direla, balio unibertsal berdinek balioesten dituztela. Hori izan daiteke eskolan hedatzeko abiapuntuetako bat”**

**Xabier Agirre**

# ESPAZIOen antolaketa haurren AUTONOMIA garatzeko



**Azaroaren 9an (ostirala) DURANGON eta 10ean (larunbata) DONOSTIAN**

- Sarrera ekitaldia: “Espazioa, bizitzaren markoa”.

- “Espazioen garrantzia haurren garapenean. Espazioak eta jolas guneak haur hezkuntzan.  
(gaztelaniaz)


\* **Rosa Vidiella i Badell.** *Kataluniako hezitzaile espezializatua eta pedagogo. Associació Pikler Hengstenberg*

- Euskal Herriko hainbat Haur Eskoletan espazioak definitzeko egindako bideak, eta gaur egungo praktikak.

- Mahai-ingurua.

**informazio osoa eta izena emateko aukera:  
[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) Tel.: 943 371 408**





## Parte hartu!

Azken 6 urtetan, Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 9000 ikaslek parte hartu dute, animatu gaurko ekimenak biharko konponbide izaten.

Kosmodisea 2012-2013 IKTen eta talde lanaren bitartez ekintzailatasuna lantzeko proiektu bat da.

Bertan ikasleek IKT eraminta desberdinak erabiliz kurtsuan zehar proiektu berritzaile bat sortzeko 3 lan aurkeztuko dituzte, hiruhileko bakoitzean bat, irudi eta soinua, wikia eta bideoa erabiliz.

Irakasleek laguntzaile funtzioa beteko dute ikasleak proiektu honetan gidatzeko, Kosmodisea taldearen laguntza osoz, 900 840 842 dohaineko telefonoan eta info@kosmodisea.net-en dudu, kezka edo eta arazo desberdinei irtenbidea emanaz.

## Participate !

During the last 6 years, 9,000 students from Primary Education, ESO, Bachiller and Training Courses have participated in this adventure. Come on; make today's action be tomorrow's solution.

Kosmodisea 2012-2013 is an initiative which, by means of ICTs and team work, promotes an entrepreneurship culture.

Students create an innovative project using ICTs, conducting 3 projects, one per semester, in different formats such as: image and sound, wiki and video.

The function of the teaching staff is to help and guide the process, always with the help of the Kosmodisea team which, by means of the toll-free telephone, 900840842, and info@kosmodisea.net solves any doubts and/or problems which may arise.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Berrikuntza, Lanbide Heziketa eta Turismoaren Departamentua  
Departamento de Innovación, Turismo Rural y Turismo

Gipuzkoa  
BERRIA

EUROPAR BATASUNA  
UNION EUROPEA  
FUNDACIÓN EUROPEA DE INVESTIGACIONES  
FONDO SOCIAL EUROPEO



European Union  
Fondo Social Europeo  
Investing in the future